

409.ZENBAKIA-AZKOITIKO HERRI ALDIZKARIA-2021EKO MAIATZA



MAXIXATZEN

ZENBAKI HONEKIN BATERA

+ GUKA ALDIZKARIA

MARITXU ERRAZKIN

BOLANTEAN 60 URTE



INNOVA

AZPEITIA

KORTE-KLINIKA



Jose Artetxe 5 • 943-025955

Zure ametsak egi bihurtzen lagunduko dizugu



943 16 98 78

info@alberdi-inmobiliaria.com
Trenbidearen Zumardia, 3 AZKOITIA



AZKOITIA - TOLOSA KALEA

San Martin Auzoan etxebizitza ederra
toki lasai eta argitsuan

3 logela · 2 bainugela · 89m²



Salgai
160.000€

AZKOITIA - FLOREAGA BERRI PLAZA

Etxebizitza altu eta argitsua bista
paregabeekin

3 logela · 1 bainugela · 87m²



Salgai
125.000€



AZKOITIA - KALE NAGUSIA

Azkoitia erdigunean aukera bikaina

3 logela · 2 bainugela · 75m²



Salgai
160.000€

AZKOITIA - AIZKIBEL KALEA

Hormigoizko estruktura duen
etxebizitza Aizkibel Kalean

3 logela · 2 bainugela · 97m²



Salgai
180.000€



PREZIO JEITSIERA



Eskaintza osorako bisita ezazu: www.alberdi-inmobiliaria.com



MAXIXATZEN 409

2021EKO MAIATZA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ANDONI ELDUAIEN SORALUZE



Aurkibidea

- | | | | |
|----|---|----|--|
| 5 | Iritzia Nerea Uranga,
<i>Erabakiak</i> | 25 | Zakelmari |
| 6 | Hitz bitan Xabier Eizagirre,
sokatiralaria | 26 | Erretratua Odei Arregi, kale
antzerkilaria eta ipuin kontalaria |
| 8 | Izpiak eta hizkiak Ainhoa
Beristain, <i>Loreak</i> | 30 | Plazan bazar |
| 10 | Iritzia Joseba Epelde Bereziartua,
<i>Realzale</i> | 32 | Erreportajea Maritxu Errazkin,
<i>Bizitzeko poza eman dio bidaiatzek</i> |
| | Yolanda Larrañaga Arrieta, <i>Galderak</i> | 38 | Mahai bueltan Irene Elorza,
Donostia Turismoko teknikaria |
| 12 | Erreportajea
<i>Gaitzizenak eta ezizenak</i> | 40 | Klik! Santa Kutz Berriko kolore
<i>festa</i> |
| 18 | Iritzia Ioritz Gonzalez Lertxundi,
<i>Sustrairik gabeko zuhaixkak</i> | 44 | Kultura Xabier Etxaniz, <i>Melodia
ilunak</i> |
| 19 | Iritzi grafikoa Sara Rodriguez | 46 | Euskara Ixabel Jauregi Alberdi,
<i>Gertu nahi banauzu</i> |
| 20 | Elkarriketa Javier Telleria,
'Aita Mari' ontziko boluntarioa | | Bertsoa paperean |

MAXIXATZEN

TOKIKOM

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-85 36 17
maxixatzen@maxixatzen.eus
www.maxixatzen.eus

Erredaktoreburua:

Nerea Uranga
Erredaktore taldea:
Aitziber Arzallus
Andoni Elduaien Soraluze
Julene Frantzesena
Nerea Uranga

Diseinu arduraduna:

Iñaki Martinez Albizu
Publizitate arduraduna:
Egoitz Azkoitia
**Zenbaki honetako
kolaboratzaileak:**
Ainhoa Beristain
Joseba Epelde Bereziartua



Ioritz Gonzalez Lertxundi
Sara Rodriguez
Gorka Larrañaga
Xabier Etxaniz
Ixabel Jauregi Alberdi
Eneritz Artetxe

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-706/97
ISSN: 1137-8891
Tirada: 900 ale



PUBLIZITATEA



Erabakiak



NEREA URANGA

Norbera besteren bati gertatzen ari zaionaren errudun dela sentitzea gauza gogorra da gero. Joan den hilaren erdialdean, sentimendu hori sarri antzeman nuen inguruko pertsonengan.

Etxean sartuta, konfinatuta, egon behar izan dut hamar egunez, lagun batek sintomak izan, proba egin eta positibo eman zuelako. Bi egun lehenago egon ginen elkarrekin, trago bat hartzen, taberna bateko terraza batean, tartearekin, aire librean, gustura eta maskararekin; noski, tragoa hartzeko kenduz eta, baina ezin esan erantzita zenbat denboran izan nuen. Gaizki-gaizki ez naiz egon etxean, egia esan. Baina antigenoaren emaitza negatiboa zela jakin orduko, aztarnariak aholkatutako kontu batzuk ez nituen bete etxe barruan. Gaizki eginda, badakit. Etxean hartu genuen erabakia izan zen. Dena den, bigarren probaren emaitza negatiboaren berri jakin arte, ez nintzen lasai egon erabat.

Egia esanda, gaitza harrapatzeko arrisku gehiagoko uneak bizi izan ditut Aste Santuko oporraldian. Arratsalde batean, Donostiara joateko autobusa hartu nuen gertuko hiru lagunekin. Goraino beteta joan zen, azkenaurreko aulkian eserita joan nintzen, azkenengoan haur kuadrilla bat zihoan. Batek maskara kenduta egin zuen ia bidaia guztia, beste bakarren batek sudurra airean. Kenduta zuenak, mareatuta zegoela zioen ozen, botaka egin behar zuela; aurrean nengoen ni. Panorama irudikatuz egin nuen bide guztia; baina ez, ez zen ezer gertatu.

Donostiatik etxerako bueltan, autobusa berriro goraino beteta etorri zen; gidariak, jende gehiago sartzen ez zelako, bigarren autobus bat ere eskatu zuen. 10 urteko haurraren galdera: "Zinema aretoetan, kontzertuetan... toki bat hutsik utzita eseri behar izaten dut gurasoen edota lagunaren ondoan, eta autobusean zergatik eser naiteke edozeinen ondoan?". Nire erantzuna: "Ez dakit, hala erabaki dutelako izango da".

Inguruan dugun panorama ikusita, ezartzen dituzten neurriak hartzeko arazorik ez daukat; egia esanda, niri behintzat bizimodua ikaragarri-ikaragarri ez didate aldatu. Izurria hasi zenetik bestelako zerbaitegiten badut, gertukoekin, kuadrillakoekin eta lagunekin gutxiago elkartzeara eta egotea da. Gertu-gertukoei gertatu diezaiekeenaren errurik ez dut sentitu nahi; horregatik urrundu naiz. Ez dakit nik hartu dudana erabaki horrek ez ote nauen etxeko konfinamenduak berak baino gehiago isolatuko. Orduan zergatik hartu dut erabaki hori? Ez dakit, hala erabaki dut. COVID-19aren hedapena saihesteko erabaki dituzten neurri askok zalantza ugari sorrazten dizkirate, galdera asko. Ez dut ukatuko, ordea, nik neuk hartutako erabakiek ez didatenik dudarik sortzen. ■■■

**"AUTOBUSEAN
ZERGATIK
ESER NAITEKE
EDOZEINEN
ONDOAN?"**

Xabier Eizagirre: "Sokatirak bazterrak ezagutzeko aukera eman dit"

TESTUA ETA ARGAZKIA: NEREA URANGA

Sokari lotutako bi kiroletan aritzen da Xabier Eizagirre (Azkoitia, 1967): irailetik apirilera artean sokatiran ibiltzen da, Ibarrako sokatira taldearekin; eta uda partean, berriz, eskaladan. "Sokatirako sasoia bukatutakoan eskalatzea jotzen dut. 20 urte nituenetik-edo aritzen naiz eskalatzen", dio.

Nolatan hasi zinen sokatiran?

Beti gustatu izan zait sokatira. Nuarben hasi nintzen tiralari, lur gainekoan. Han bi urte egin nituen; aurreneko urtean nahiko ondo ibili nintzen, bigarren goan, ordea, gerriko minez eta nahiko pattal. Garai hartan, taldea ere desegiteko zegoen, eta utzi egin nuen. Gero, Ibarran tiralari bila zebiltzala jakin eta animatu egin nintzen; bosgarren sasoia egin dut talde horretan. Orain dela bi-hiru urte, lur gainekoan Mutriku sokatira taldearekin ere bi urte egin nituen tiralari.

Alde handia al dago lur gaineko eta goma gaineko modalitateen artean?

Sokatiran hankak-eta asko nekatzen dira, nekea orokorra izaten da. Baina lur gainekoa eta goma gainekoa desberdinak dira oso. Esaterako, gerriatik gutxiago sufritzen dut goma gainekoan tiratzen hasi nintzenetik. Bestalde, goma gaineko sasoia orain gutxi bukatu da, negu aldean jokatzeko. Orain, berriz, lur gaineko denboraldia hasiko da.

Zer moduzko sasoia izan da aurtengoa?

Ondo joan da. Baina pandemia dela eta, nahiko narrasa izan da Euskal Herriko Sokatirako Goma Gaineko Txapelketa. Berandu jokatu da, eta normalean, pisu bakoitzean hiru jardunaldi izaten dira; lehenengo biak kanporaketak izaten dira eta sei talde sailkatzen dira finalerako. Aurten, ordea, txapelketako jardunaldi guztiak pisu bakoitzeko finalak izan dira; bakarra jokatu da maila bakoitzean. Azkenean, bost egunetako txapelketa izan da. Bestalde, oso talde gutxi lehiaitu dugu txapelketan: Bizkaiko talderik ez da izan eta Ipar Euskal Herrikoei ez diete utzi etortzen.

Neurri berezirik hartzen al duzue egungo egoera tarteko?

Entrenatzeko-eta ez dugu aparteko neurri bereziegirik hartzen, baina txapelketako jardunaldietan neurri zorrotzak hartzen dira. Aurten, esaterako, txapelketako tiraldi denak leku berean jokatu dira, Getxon [Bizkaia]. Ikuslerik gabe izan dira; bestela ere ez da jende asko joaten gu ikustera, baina... Gainera, talde bakoitza aparte egoteko itxitura batzuk jarri dituzte jardunaldietan, eta itxituran maskara jantzita eduki behar izaten genuen. Lehen, izurriaren aurretik, elkarren kontra tira egin ondoren, bi taldeetako tiralariak gurutzatu eta elkarri eskua ematen genion, baina horrelako kontu denak kendu egin dituzte.

Orain denboraldia eta txapelketak bukatutakoan dena lagatzen al duzue?

Orain, fisikoa pixka bat mantentzeko, geure kasa ibiltzen gara bizikletan eta bestelako ariketak egiten. Irailean hasiko gara berriro entrenatzen. Orain, txapelketa bukatuta jan da egiten duguna.

Pisua asko zaindu behar izaten al duzue?

Hori izaten da gure gaitza. Txapelketa garaian kiloak eta jatekoa asko zaindu behar izaten ditugu; pisua jaitsi eta gosea pasatu behar izaten dugu, eta txapelketak bukatu eta lehenengo hiru bat aste ezer askorik egin gabe igarotzen ditugu; jan eta egon egiten gara. Ondoren hasten gara mendian eta bizikletan ibiltzen.

Sokatirako hiru munduko txapelketatan parte hartu duzu.

Bai, orain dela hiru urte, Mutriku taldearekin, Hegoafrikan Lur Gaineko Munduko Sokatira Txapelketan parte hartu nuen, eta urte berean, Ibarra taldearekin Goma Gaineko Munduko Txapelketan Txinan. Iaz, berriz, azken talde horrekin Irlandan izan nintzen munduko leihan. Bazterrak eta leku desberdinetako jendea ezagutzeko aukera eman dit sokatirak, eta ederra da hori. Datorren urtean, Singapurren zen jokatzea Goma Gaineko Munduko Txapelketa, baina esan berri digute Singapurren behintzat ez dela jokatu, bertan behera utzi dutelako. Pena da, banuelako hara joateko gogoia. ■



Loreak

ARGAZKIA ETA TESTUA:

AINHOA BERISTAIN

Iritsi dira loreak
Negu beltz baten ondoren
Esperantza izpi gisa ■■■







Realzale

Nek ez irudika ditzaket haurtzaroko urteak gure sukaldeko irratia gogora ekarri gabe. Goiz eta arratsalde izaten genuen piztuta, eta irratia esatea, gure etxean, Loiolako Herri Irratia esatea zen, jogurta beti Danone edo komuneko papera beti Elefante ziren bezala. Horrela entzun nituen, besteak beste, Benito Lertxundiren, Xabier Leteren, Mikel Laboaren, Lourdes Iriondoren eta Estitxuren abestiak lehen aldiz, bai eta Queen, Status Quo, Beatles eta beste talde batzuenak ere. Horrela ezagutu nituen Mariano Ferreren ahotsa eta karisma, Loiolako mezak eta errosarioa, zer esaten zuten asko ulertzeke, egia esan behar bada, hasiera hartan, behinik behin. Eta horrela izan nuen Realaren berri ere Jose Antonio Alkortaren

emankizunen bidez, nire zaletasuna eta Alkortaren ahotsa betiko lotzeraino.

Bitxia da. Gogora datorkidan Realeko lehen oroimena Muruzabali buruzkoa da. Gaur egun gehienek ahaztuta duten jokalaria bat izan zen, Real ahaztezin haren aurreko urteetako aurrelari goleatzailea. Gero etorriko zen Idigoras, Satrustegi eta Lopez Ufartek osatutako hirukote ahaztezina, eta Arconada, Zamora eta gainerakoak. Floreagako zinema areto zaharreko *gallineroan* harrapatu ninduen lehen ligak; bat baino gehiago zegoen irratia adi-adi film-emanaldia albo batera utzita. Pelikula bukatu orduko, igandero bezala, Tomao tabernako emaitzak ikustera joan ginen antxintxika, irratian entzundako lorpen sinestezina ziurtatzeko edo.

Ondorengoak dira bigarren liga, Hanburgoren aurka bidegabe galdutako Txapeldunen Ligako finalerdia (Europako Kopa esaten zitzaion garai hartan), 1987ko kopa, 2003ko bigarren postua, jaitsiera eta abar.

Urte horietako guztietako gorabeherak argi utzi didate realzaleak eta realzaleak daudela. Nire kasuan, ia partida guztietan sufritzen edo gozatzen dudari arren, badakit oinaze eta gozamen horiek ez direla, nolabait esateko, benetakoak, edo benetakoak badira, ez behintzat garrantzitsuenak. Horrekin batera, nahiz eta ia beti Realak irabaztea nahi izaten dudari, uste dut porrotek eta nahigabeek realzaleago egin nautela garaipenek eta arrakastek baino. Ez du masokismoarekin zerikusirik. Oker ez banago, Unamunok

HAUXE BAI JENEROA!



esana da sufrimenduak gehiago lotzen eta elkartzen dituela gizakiak beste ezerk baino. Agian, Real Valentzian bigarren mailara jaitsi zenekoa da realzale askok oroimenean dugun egunik tristenetako bat, baina infernu-aldi horixe ikusten dut geroke batasunaren, harrotasunaren eta indarraren oinarrian.

Hartara, realzale moduan, neure-neureak sentitzen ditut garaipenak eta une oparoak bezala porrotak edo atsekabeak ere. Jokalariekin batera sufritzen eta gozatzen dut, handitzen eta txikitzen naiz. Alde horretatik, Juanma Lillok zenbait zalek Mikel Aranbururi txistu egin ondorengo prentsaurrekoan esan zuen bezala, ulertezina egiten zait realzale batek bere jokalariei txistu egitea (nork bere frustrazioak jokolariengan

proiektatzea dela pentsatu izan dut beti), bereziki jokalaria hori Mikel Aranburu, Agustin Aranzabal edo antzekoren bat bada. Izan ere, nik Realarentzat nahi nukeen zaleak une txarretan babesten ditu jokalariaik, une gozoetan beti izango baitute lausengatuko dituenik.

Beraz, joan den apirilaren 3ko partida amaitzearekin batera, pozak gain hartu zidan, eta urduritasunak zein harrotasunak loa galarazi zidaten. Realak galdu izan balu, argi dago, nahigabeak eragotziko edo atzeratuko zidan begiak biltzea; alabaina, nire gogoak jokalariaik txalotuko zituen, eta porrotak are realzaleago bihurtuko ninduen, bizitzan bezala futbolearen ere ia galtze guztiek eskaintzen baitigute zer irabazi. ■

ERREMATEA



**YOLANDA LARRAÑAGA
ARRIETA**

Galderak

A Askotan, erantzunik gabeko galderez betetako gorputzak garelako pentsatu ohi dut. Baina gaurko galdera hauen guztien erantzuna, ezaguna eta bakarra da, tamalez.

Honakoak dira etxean egin dizkidaten galderak: "Ama, gustuko dudun zerbait egiten dut, eta horretan jarraitu nahi dut ahal dudun bitartean gorengo mailan, baina zergatik ditut hainbeste oztopo gustuko dudun horretatik bizi ahal izateko? *Antxintxike* egitea da nire pasioa eta bizitza, sakrifizio eta bakarkako lan asko eskatu arren. Nire adinekoen gauzak ezin ditut bete askotan. Urteak daramatzat astean sei-zazpi egunetan entrenatzen: bakardadea dut lagun ilunabar hotzetako kilometroetan; herrian ezin dut entrenatu askotan, horretarako ez dudalako leku egokirik; maiz, txapelketatan parte hartzeko ordaindu beharra izan dut; edota kilometroak, egonaldiak... egitera behartuta nago. Ama, baina nik ezin dut inoiz pentsatu hortik bizitzerik edota ezer jasotzerik izango dudunik. Izerdia, sufrimendua eta nire buruarekiko poza bai noski, inguruko zoriona ere bai... Zergatik dago hainbesteko desberdintasuna kirol batzuetatik besteetara?".

Alabatxo maitea... Sentitzen duzun justizia ezaren erantzunik izan al daitezke aukeratu duzun kirola bera eta neska izatea? ■





Perretxikostarrak.

Testua: **Aitziber Arzallus eta Andoni Elduaen.** Argazkiak: **Aitziber Arzallus, Andoni Elduaen eta utzitakoak.**

Zein da zurea?

Ezizenez eta gaitzizenez dira Azkoitiko familia asko ezagunak herrian. Izenaren edo abizenaren orde, ezizenez edo gaitzizenez deitzearen ohiturak indar handia izan du urte luzez herrian, eta gaur egun ere zientoka dira beren zein gurasoen baserriagatik, senideren ofizioagatik edota bestelako kontu bitxiengatik izena goititzen dutenak. Hala eta guztiz ere, transmisioa apaldu egin da azken urteetan, eta askok abizenaz deitzen diote albokoari. Ezizenen edo gaitzizenen, ordea, ez da familia kontua bakarrik; izan ere, Euskal Herriko herri ia guztiek dute berea, eta azkoitiarrak sakelak bezala dira ezagunak. Azkoitiko zortzi familiarekin bildu da Maxixatzen, eta beren ezizenak eta gaitzizenenak nondik datozen kontatu dute.

TXORROTETARRAK

Gutxienez bost belaunaldi daramatza *Txorrote* ezizenak Azkoitian. Horrela kontatu dute, behintzat, Javier, Maje eta Olalla Epeldek zein Oihana eta Eli Larrañagak. Guztiak dira txorrotetarrak, eta “harro” daude duten gaitzizenenagatik. Familia honen gaitzizena ezagutzea nahikoa da, Azkoitian ezere truke bestelako izengoiti bat jartzen zela baieztatzeko. “Gure birraitonak –Joxe Mari Epelde– janzten zuen baserritar txapelak txortena zuen. Antza, garai hartan ez zen ohikoa txapelak txortena izatea. Ez gaude ziur ezizenaren jatorria hori ote den, baina betidanik entzun dugunagatik, txapeletako txortena txorrote bezala ezagutzen zen garai batean”, azaldu du Olalla Epeldek.

Harrezkero, familia hartako guztiei, eta bereziki Epelde abizena lehena edo bigarrena dutenei, Txorrote esaten diete. Gainera, txorrotetarrek elkarri gaitzizenez deitzen diote. “Kalean zein familiatakoak garen galdetzen digutenean, txorrotetarrak garelara erantzun ohi dugu. Halaber, lehengusuok elkarri *Txorro* esaten diogu. Pentsa, Whatsapp taldea ere badugu lehengusuon artean, eta ‘Txorrotetarrak’ da taldearen izena”, adierazi dute.

Azkoitian oraindik orain herritar askori ezizenez deitzen bazaio ere, txorrotetarrek uste dute etorkizunean joera hori galdu egingo dela. Gaitzizena pertsona bakoitza “zein familiatakoa den bereizteko” erabiliko dela uste dute, baina ez dute pentsatzen pertsonari deitzeko erabiliko denik. “Gustatuko litzaziguke gure seme-alabei jendeak Txorrote ezizenez deitzea, baina galdu egingo delakoan gaude. Nire alaba honek, esaterako, esaten du ez dela Txorrote”, dio Eli Larrañagak bere alabari buruz hizketan. “Beste honek berriz aitari ere Txorrote deitzen dio”, esan dute argazkian faltan den Iker Epelde *Txorroter*en alabagatik.



PEDROMOSTONEKOAK

Pedromostonekoak ere aski ezagunak dira Azkoitian. Lehen begi kolpean ezizena irakurrita, askok pentsa dezake muztioa edaten zuen Pedoren batetik datorrela ezizena, baina ez da kasua.

Izaskun, Arantzazu eta Itziar Alberdi Pedromostenekuek dira, eta horrela azaldu dute beren ezizenaren jatorria: “Pedro Modesto Alberdi gure birratoinak bi seme izan zituen, batetik gu hiruron aitona, eta bestetik, gerora Santa Klara komentuan apaiza izan zen osaba. Pedromostoren semeak bezala ezagutzen zituen jendeak gure aitona eta osaba; izan ere, eta denboraren poderioz edo, Pedro Modestoren *d* eta *e* hizkiak jan egin zituzten, eta harrezkero, Pedromostenekuek gara gure familian”, kontatu du Itziar Alberdik.

Pedro Modesto Alberdi *Pedromosto*, gainera, Azkoitiko alkatea izan zen, eta hari buruzko kontuak ere badakizkitez hiru ahizpek. “Gure birraitona Pedro Modesto Alberdi zen, eta guk jakin dugunagatik, XIX. mendearen erdialdetik XX. mendearen hasierara Azkoitiko alkatea izan zen. Haren alkatealdian, Guardia Zibilak bere egoitza Azkoitian kokatzea nahi izan zuen, baina gure birraitoina erabaki horren aurka agertu zen. Kontra egiteagatik isuna jarri zioten, eta isuna ordaintzearen aurka egin zuenez espetxean sartu zuten. Ez dakigu zenbat denbora igaro zuen gero han”, azaldu dute Alberdi ahizpek beren birraitonari buruz.

Ondorengoek ere hartu dute Pedromosto ezizena. Arantzazu, Itziar eta Izaskunen kasuan, ordea, Pedromosto ezizena Joxe aitaren izenarekin eta beren izenarekin tartekatuta izan dute azkoitiarrek. Modu honetan azaldu du Itziar Alberdik: “Gure aitari Joxe *Pedromosto* deitzen zioten, eta guri Itziar *Joxe Pedromosto*, Arantzazu *Joxe Pedromosto* edota Izaskun *Joxe Pedromosto*, gure aitaren izenagatik”. Orain, berriz, izenez deitzen diete hiru ahizpei. Halere, bere belaunaldi ingurukoek edota



zaharragoek familiari Pedromosto deitzen diote. “Itziar Urrestilan irakasle egon zenean, han ez zuten ezagutzen zein familiatakoa zen, baina Pedromostonekoa zela esanda berehala jabetu ziren”, azaldu du Izaskun Alberdik. Jakitun dira, ordea, gaur egungo gazteek elkarri abizenez deitzen diotela, eta horrek pena ematen die.



PERRETXIKOSTARRAK

Era guztietako gaitzizenak aurkitu daitezke Azkoitian, eta badira jakiekin lotura dutenak ere. Basoetako udazken loreari edo perretxikoari lotutakoa da ondorengo familia protagonistaren gaitzizena. Joxe Mari Sagarzazuren familiari *Perretxikos* deitzen diote herrian. Lau anai-arreba dira Perretxikostarrak: Joxe Mari bera, Belen, Jose Luis eta Juan Jose. Hala eta guztiz ere, Perretxikos ezizena lau horien aita Joxek eman zien.

Horrela kontatu du Joxe Mari Sagarzazuk gaitzizenaren jatorria: “Gure aita Floreagako eskolan ibili zen. Mertenarioen aurretik ere saletarrak ziren Floreagan, *paparzuriak* deitutakoak. Eskola egun batean, ikasleek gelakideen aurrean deklamazioa egin behar izan omen zuten; hau da, guztien aurrean bertsoren bat kantatu edota gai zehatz baten inguruan hitz egin. Gure aitari, antza, *perretxiko* hitza egokitu zitzaion, eta hitz horren inguruan aritu behar izan zuen gelaren aurrean. Esaldiz esaldi perretxiko hitza tartekatu omen zuen gure aitak, eta badakizu zer den herri hau, ordutik aurrera Perretxikos gaitzizena geratu zitzaion; ez du beste istoriarik”, kontatu du bere aitari Perretxikos gaitzizena jarri ziotenekoa.

Harrezkero, eta beste familia askok hartu duten gaitzizenei gertatu zaizen bezala, Perretxikos gaitzizena laburtu egin dute, hitzak laburtzeko joera ere nabaria baita Azkoitian. “Orain, *Perre* deitzen digute guri”, azaldu du Joxe Mari Sagarzazuk. Joxe Mariren ondorengoek eta bere anai-arreben seme-alabek, ordea, ez dute hartu Perretxikos gaitzizena; izan ere, anai-arreba guztiak herritik kanpo bizi dira. “Seguraski, nire semeak ez du jakin ere egingo Perretxikos deitzen digutela, eta semearen lagunek are gutxiago. Nire belaunaldiko lagunek, ordea, bai, *Perre* deitzen didate”, nabarmendu du Sagarzazutarren artean seme zaharrenak.



MOKOLUATARRAK

Mokoroa baserrikoak dira gaur Azkoitian *mokoluatarrak* bezala ezagutzen direnak. Hamahiru anai-arrebetako hiru dira Joxe, Arantxa eta Mailu Garate. Anai-arrebetan zazpigarrena da Joxe, bederatzigarrena Arantxa eta hamabigarrena Mailu. Hiruren aita Mokoroa baserrikoa zen, eta noski, baita Joxe, Arantxa eta Mailu ere.

Ezizenaren jatorriari bueltaka, Joxe Garatek azaldu du gaztetan *Moka* deitzen zietela Mokoroa baserrikoei. “Moka handi eta Moka txiki, bi baserri horrela ezagutzen ziren Mokoroan”. Moka sagar zuri mota bat da, eta familiak uste du hortik datorrela beren familiari izena ematen dio ezizena. Urteek

aurrera egin duten bezala, baina, *Mokolua* ezizenez dira ezagunak orain Mokoroa baserrikoak Azkoitian.

Mokoluatarrak ezagunak dira herrian, batetik familia handia direlako, eta bestetik, herrirako zenbait lan egiten zituztelako. Joxek, Arantxak eta Mailuk gaurko dituzte lehengo kontuak. Haien arabera, elizarako baserritarrek beren eskaintza egin behar izaten zuten, eta beren aita garia batzen ibiltzen zen lantegietan eta baserrietan. *Imilaune* edo erreale baten laurdena ematen zuten baserrietatik, eta Joxek aitari laguntzeko bide luzeak egiten zituela azaldu du. “Ganoraz eman balute gutxienez... Patrikada txiki bat ematen zuten askotan edota plateretik putz eginda alde egiteko adina gari”, adierazi du. Hiru anai-arreben ama, bestalde, Arumarrate baserrikoa zen. “Zelaiareneko lukainak eta odolkiak gure amak egiten zituen, eta bataioak izaten zirenean ere edozein etxetako sukaldetara joaten zen laguntzera. *Martoixe* egiten zutenean ere inguruko baserrietakoak elkartzen ziren elkarrekin bazkaltzeko”, azaldu dute banan-banan hiru anai arrebek.

Gaur egun ere ezizenez ezagutzen dituzte mokoluatarrak herritarrek. “Mokoroa ondo esatea nahi izaten dugu, baina *Moko*, *Mokolu* ere deitzen digute”, azaldu du Arantxak. Miel Garate eta Juan Joxe Garate Mokoluareneko seme-alaba bezala ere ezagutzen dituzte, baina bestelako ezizen batzuk ere hartu dituzte gerora. Miel Garate, esaterako, ezaguna da herrian *Ugarte* edota *Aguas* ezizenengatik ere. Juan Joxe Garate, berriz, *Kamatxo* bezala ere ezaguna da. Era batera edo bestera, guztiek dute ezizenen bat oraindik orain.

Aurrera begira, Joxe itxaropentsu da eta Mokolua ezizenari eutsiko zaiola uste du. Gazteek-eta elkarri abizenen arabera deitzen diote, azaldu du Mailuk. Miel Garaterentzat, berriz, “mehetu” egingo da ezizenen kontua herrian. Juan Joxek ere “galdu” egingo dela dio.

PORRUENEKOAK

Aritz eta Leire Zabaleta anai-arrebak dira, eta Jose Luis haien aita. *Porruenekuek* dira hirurak, hala ezagutzen dituzte Azkoitian, gaitzizenak izan ditzakeen aldaera guztietan. Aita-semeei gehienek *Porru* esaten diete; Leireri, berriz, *Porru*.

Jose Luis jaiotzez Barakaldokoa izan arren, aurrekoak azkoitiarrak zituen. “Ama azkoitiarra nuen, aiton-amonak ere bai, eta neu ere, Bizkaian jaio arren, bizitza guztian Azkoitian bizitakoa naiz”, argitu du. Hain zuzen ere, Jose Luisen aitonarengandik datorkie ezizena, baina ezin ziurtatu zergatik hasi zitzaizkion hari Porru deitzen. Jose Luisek gogoan du frontoia zaintzen ibiltzen zela aitona, eta buelta hartan jarritako gaitzizena izango dela pentsatzen du. “Txikia zelako *porru txiki* esaten ote zioten edo... Baina ez dakit, neure okurrentzia da hori”. Jatorria non izan dezakeen galdezka ibilitakoa dela esan du. “Osaba bat eta izeba bat bizi dira, eta galdetu izan diet, baina haiek ere ez dakite”.

Jose Luisen aitonari jarritako ezizena seme-alabengana pasatu zen, eta Jose Luisen amari eta haren anai-arrebei Porruenekuek esaten zieten. Jose Luisen belaunaldiko senideen artean, ordea, batzuk bakarrik dira familiako tituluaren jabe. “Azkoitian gelditu da ezizena. Nire anai guztiak eta ni hala ezagutzen gaituzte, baina Soraluzen eta Donostian-eta



baditugu lehengusuak, eta haiei ez diete Porrue esaten”. Aritz eta Leire ere Azkoitian bizi direnez, familiako gaitzizenari eutsi egin diote; beren belaunaldiko bakarrak dira, Porruekuen aldetik Azkoitian ez baitute beste lehengusurik. Dena dela, badute ezizenari helduko dion ondorengorik, Aritzen seme txikiak, nongoa den galdetuta, Porruekue dela erantzuten baitu.



TERTZIOPELONEKOAK

Aitor eta Miren Beneitez anai-arrebak eta haien ama Kontxi Sagarzazu *Tertziopeleonekuek* dira azkoitiarrentzat. Aitorrek azaldu ditu familiatik datorkien izenaren nondik norakoak: “Nire amaren aitona, gure birraitona, Aingeru Guardan jaio zen, eta abarketagilea izateaz gain, Azkoitiko Lanera Vascongada txapel fabrikako langilea zen; txapelak josten zituen. Ez zekien erdaraz, baina, hala ere, *‘a mi me gustan la boinas de terciopelo’* zioen kanta bat abesten omen zuen, eta hortik ezizena”.

Herrian *Terciopelo* deitzen hasi zitzaizkion Kontxiren aitonari, eta gerora, *Terziopelo*, haren seme bakarrari, Kontxiren aitari. Denborarekin, ordea, ezizena indarra galtzen joan zela kontatu dute, geroz eta jende gutxiagok ezagutzen zituela familiako gaitzizenez, kasualitate bati esker berreskuratu zuten arte. Aitorrek azaldu du hori ere, hari gertatu zitzaiolako. “13 urte nituela, lagunekin Aingeru Guardara joan nintzen elurretan ibiltzera, lagun bat han bizi zelako”. Aitorrek artean ez zekien *Terziopelonekue* zenik. “Hango amonak nongoak ginen galdetu zigun, eta ama eta aita zein nituen azaldu nionean, ‘orduan zu *Terziopelonekue* zea’ erantzun zidan. Lagunei grazia egin eta *Tertzio* deitzen hasi zitzaizkidan, eta horrekin geratu nintzen”. Eta anaia *Tertzio* zenez, arreba gazteari *Tertzia*.

Familiako gaitzizena berreskuratu izanak poz ematen diela aitortu dute hirurek, “are gehiago izen horrek zer historia duen jakinda”, Aitorren esanetan. “*Terziopelo* izan zen Azkoitiko azken abarketagilea, Plaza Berriko espaloian jarduten omen zuen abarketak egiten, eta hainbat argitalpenetan eman izan dute haren berri, baita Frantziako prentsan ere”. Bera da Gorka Larrañagak Altzibarren margotu berri duen horma irudian ageri den gizona ere.

Familiatik datorkien ezizenari ondorengo belaunaldiak eutsiko dioten jakiteko oraindik goizegi dela diote, Mirenen semeak urte eta erdi besterik ez dituelako.



TXANPAÑATARRAK

Ricardo, Mari Karmen, Karmen eta Beñat Eloza *txanpañatarrak* dira; “peto-petoak”, Ricardoren arabera. Hiru zaharrenak elkarren artean lehengusuak dira, eta Karmenen iloba da Beñat. Gaitzizena nondik datorkien galdetuta, Karmenek eman du azalpena: “Nik entzun izan dudana da, Fernando VII.a erregeak hemendik alde egin behar izan zuenean, gure birramonak haren gortekoren batzuekin Frantziara joan behar izan zuela inude. Handik bueltatu omen zen esanez han edaten zutela edari bat ederra, eta

txanpaina izena zuela. Handik, Txanpañanekuek gu”. Mari Karmenek eta Beñatek buruarekin baietz diote, haiek ere hori entzun izan dutela. Hain zuzen ere, Beñaten aita, Karmenen anai-arrebetan zaharrena, izan zen gaitzezina nondik zetorren ikertzen aritu zena eta bertsio hori osatzea lortu zuena. Ricardok beste xehetasun bat erantsi dio Karmenek kontatutakoari: “Gure izeba Petrak-eta hotela eduki zuten Azkoitian, eta txanpaina oso gutxi edaten zuten garaietan, haiek Gabonetan txanpain kaxa ekartzen omen zuten opari”. Bi istorioak elkarren osagarri izan daitezke, baina garbi dagoena da gaitzizenak edateko txanpainarekin duela zerikusia. Eta izenaren jabe ez ezik, izanarenak ere badira txanpañatarrak. Karmenek, esaterako, egunero jatorduan txanpain kopatxo bat edaten duela aitortu du, eta Mari Karmenek, egunero ez, baina tarteka-tarteka edatea gustatzen zaiola.

Belaunaldien joanean, familiako gaitzizena indarra galtzen joan dela diote, baina oraindik ere badirela eusten diotenak. Beñati eta haren anaiari, esaterako, *Txanpaña* esaten diote, Azpeitian bizi den lehengusu bati ere bai, baita Mari Karmenen ilobaren bati ere. Ezin jakin zenbat denbora gehiagoan iraungo duen, Mari Karmenen esanetan, “oraingo gazteek, familiako gaitzizenak baino, gehiago erabiltzen baitituzte abizenak eta horrelakoak”.

TXIPILLOTARRAK

Jose Luis, Aitor eta Josu Aramendi aita-semeak dira, baina izenez inork gutxi ezagutzen ditu herrian, *txipillotarrak* baitira denentzat. “Niri, izenez, etxeokoe eta bi anaien kuadrillakoe bakarrik deitzen didate; eta nire anaiei nire kuadrillakoe bakarrik, haientzat *Txipillo* ni naizelako”, azaldu du Josuk. “Etxera telefonoz deitu eta Txipilloatik galdetzen zutenean ere, ez genuen jakiten nor jarri, hiru anai eta aita baikeunden aukeran”, esan du Aitorrek.

Jose Luisen aitarengandik datorkie gaitzizena, baina Jose Luisek berak ez daki jatorri zehatza zein den. Josuk, ordea, zerbait entzuna duela dio: “Nik entzundakoa da aitona erdaraz ez zekiela ondo, eta *cepilllo* esan beharrean *txipillo* esan zuelako gelditu zitzaizola ezizena. Aitak dio istorio horren berririk ez duela, baina nik nonbaiten entzun dut; baliteke amak edo besteren batek kontatu izana”.

Jose Luisek ez ezik, haren anai-arrebek ere eutsi zioten aitarengandik jasotako gaitzizenari. “Bi arreba eta anaia nituen, bakarra bizi da, eta gu denok izan gara txipillotarrak”, esan du familiaburuak, “eta nire andreak ere Txipillonekue dela esaten du”. Belaunaldi bat gazteagokoen artean, berriz, Jose Luisen hiru semeek bakarrik mantentzen dute gaitzizena. “Lehengusuak baditugu, baina Elgoibarren bizi dira, eta haiei ez diete Txipillo esaten”, zehaztu du Aitorrek. “Hara joan zirenean, titulua galdu egin zuten; haiek, agian, guri Txipillo esan eta dena”, gaineratu du Josuk.

Familiako ezinenari helduko dionik badutelako, gustura daude txipillotarrak. Izan ere, Josuren 11 urteko semea, Oierri, dagoeneko Txipillo esaten diote lagunek. “Lehengo batean galdetu nion ea bere gelakoen artean zenbati deitzen dioten ezizenez, eta biri erantzun zidan; eta bat, bera, txipillotarra”. ■■■



Sustrairik gabeko zuhaixkak



IORITZ GONZALEZ LERTXUNDI

Herritar, guraso eta irakasle moduan kezkatuta naukan gai batekin natorkizue. Ondo legoke aldizkari hau beratu zenbat gaztek irakurriko duten jakitea, batik bat adin zehatz batzuetan, adibide bat jartzearen.

Eguno gazteei mugikor edo gailuei egunero zenbat ordu eskaintzen dizkieten galdetuko bagenie, bereziki sare sozialei, harrituta geratuko ginateke ziur aski. Bizian zehar zenbat liburu irakurri dituzten galdetuko bagenie ere, harritu egingo ginateke seguruenik. Azken ikerketen arabera, gazteen artean mugikorraren erabilera egunero lau ordutik gorakoa da, eta eguna hastean eta bukatzean egiten duten lehenengo eta azkeneko gauza mugikorra begiratzea da. Esango nuke, eta hanka sartzeko beldur handirik gabe, gazte askok lau liburu ez dituztela irakurri bizian zehar inizatiba propioz. Azken urteetan gailenduriko joera honek hainbat aldaketa edo ondorio sor ditzakeenaren ustean nago. Esaterako, zer eragin izan dezake gure hizkuntzaren erabileran joera honek? Kontsumitzen den edukitik zenbat da euskaraz? Nik uste honek gazteen ohituretan eta beraz, euskararen etorkizunean eragin zuzena izan dezakeela.

Teknologia berrien erabilerak azken urteetan gure bizimoduetan eraldaketa ekarri duela begi-bistakoa da, eta hauek erabiltzen jakiteak onurak ekarri dizkigulakoan nago. Hala ere, nire barnean sentimendu bat ernetzen joan da azkenaldian; hain zuzen guk izan ez ditugun hainbat baliabide eskaintzeko asmo onez, hezkuntzan oinarri izan direnei ez ote diegun garrantzia kendu. Zur eta lur geratzen naiz gazteek irakurtzean dituzten ulermen arazoak ikustean. Esaldi laburrak abiadura biziz irakurtzen ohiturik beren gailuetan, hiru edo lau lerroko paragrafoak irakurtzean izugarritzko arazoak sortzen zaizkie, edo okerrago, zuzenean errefusatu egiten dituzte irakurtzeari utziz. Irakurtzea ez zaiela gustatzen esan ohi dute askok, baina, whatsappetik iristen zaizkien mezuak irakurtzeko ez dute inolako arazorik izaten...

Esango nuke helduon gehiengoak irakurketa eta ulermena bat eginik ulertzen ditugula, irakurketak zentzua izan behar badu behintzat.

GAZTEEK IKUSTEN DUTENETIK GEHIAGO IKASTEN DUTE ENTZUTEN DUTENETIK BAINO

Zoritxarrez, egun, sinbiosi horretan arrakala sortzen ari dela dirudi, bereziki gazteengan. Ezinbesteko gaitasun bat, etorkizunean egunero beharrezkoa izango duten gaitasun bat. Izan ere, irakurketa ez al da izan ezagutza geureganatzeko tresna eraginkorrena belaunaldietan zehar? Bere onuren artean asko aipa genitzake, baina ezbairik gabe irakurketa hezkuntzaren oinarritzko tresna bat dela esango nuke.

Arestian aipatutakoaz gaindi, badirudi irakurtzeko gaitasun gabezia hori, egun, kontraesan bat dela. Bizitzen ari garen gizarte teknologizatuan, gailu guztietan eta une oro, informazio kopuru izugarria etengabe jasotzen ari garen garaian, sekula baino garrantzitsuagoa dirudi informazio guzti hori interpretatzeko gaitasuna izateak. Esaerak dioen moduan, asko balio du gaztearen indarrak, baina ez ote du hainbeste balio landuriko buru azkarrak...

Aurreak erakusten du atzea nola dantzatu, eta helduon jarrerak zeresan handia duelakoan nago. Jakina da gazteek ikusten dutenetik gehiago ikasten dutela entzuten dutenetik baino, eta etorkizuneko argia egoki baliatzeko sustrai sendoak errotzea komeni. ■■■



"Neke mentala handia da, oso gorabeheratsua izan zen bizitakoa"

JAVIER TELLERIA 'AITA MARI' ONTZIKO BOLUNTARIOA

Azkoitiko bizilagunak 'Aita Mari' ontziko taldeak Mediterraneo itsasoan egindako azken erreskatean parte hartu zuen otsailean; 102 lagun erreskatatu zituzten. Esperientzia gogorra izan zen arren, baina denborarekin errepikatuko lukeela aitortu du.

Testua: **Julene Frantzesena**. Argazkiak: **Julene Frantzesena eta utzitakoak**.

Bizipen oso gogorra". Hala deskribatu du Javier Telleria (Donostia, 1959) Azkoitiko bizilagunak Mediterraneo itsasoan bizi izandako esperientzia. Otsailean atera ziren Adratik (Almeria, Espainia) Libia eta Italia arteko migrazio bidera, Itsas Salbamendu Humanitarioa (ISH)

gobernuz kanpoko erakundeak migratzaileak erreskatatzeko erabiltzen duen *Aita Mari* ontzian. Otsailaren 18an, 102 pertsona erreskatatu zituzten. Telleriak ez ditu ahazteko itsasoan aurkitu zituzten pertsona haiek, ezta haien begiradak ere.

Badira aste batzuk Azkoitira itzuli zinela. Nola zaude?

Digestioa egiten. Izan ere, hilabete gogorra izan da bizitakoa. Neke mentala handia da, oso gorabeheratsua izan zen bizitakoa, eta hunkigarria eta intentsoa ere bai, era berean. 32 egun egon ginen lurrik ukitu gabe, horietatik hamar ikusi ere egin gabe.

Itsasoratzea ere kostatu zitzaizuen. Almeriatik atera ezinik egon zineten hainbat egunez, ezta?

Aita Mari abenduren 23an iritsi zen Adrara, eta 50 egun igarota itsasoratu zen. Otsailaren 5ean atera behar genuen itsasora, baina hil haren 12an irten genuen, hamar egun itsasontzia errebisatzeko zain egon eta gero. Gero, bost egun behar izan genituen migrazio bidera iristeko; izan ere, itsasontzi txikia da *Aita Mari*, 32 metro luze eta zazpi zabal ditu. Adratik atera orduko esan zigun patroiak lauzpabost orduraz hiru-lau metroko olatuak izango

genituela, eta halaxe izan zen: gogorra izan zen itsasoratzea.

Otsailaren 18an gauzatu zenuten erreskatea. Nolako izan zen?

Hilaren 17ko goizaldean iritsi ginen migrazio bidera. Itsaso zakarra zegoen, iparrak jotzen zuen, eta hegoak jo behar du migratzaileen ontziak itsasora ateratzeko. Usoak bezala egoten dira zain, eta eguraldi onarekin ateratzen dira. 04:00etan jaso genuen Alarm Phonen abisua, eta 05:45 aldean aurkitu genuen 102 lagun zeramatzan ontzia. Protokoloa jarri genuen martxan: lehenengo pertsona haiek lasaitu genituen, informazioa eman genien, egoera aztertu genuen; izan ere, motorra izorratuta zuten, jakirik gabe zeuden, ez aurrera eta ez atzera... Pertsona haiek seinaka edo zazpinaka hasi ginen *Aita Marira* eramaten, zodiaketa hartu eta ontzira sartzen; bi ordu inguru iraun zuen erreskateak. Pertsona bat konorterik gabe zegoen; gorputz ia guztia erreta zuen, baina arnasa hartzen zuen. Azkar artatu zuten itsasontziko medikuek, eta hiru egun erizaindegian igarota, errekuperatu egin zen. Izugarria izan zen: sekula itsasorik ikusi gabeko 102 lagun aurkitu genituen zortzi metroko ontzitzo batean; oka eta pisa gainean eginda, gasolina usain ikaragarriarekin... Eta, hala ere, ez ziren batere kexatu. Gehienak somaliarrak ziren, baina marokorak, egipziarrak, pakistandarak, siriarak, ugandarrak... ere baziren. Gehienak gazteak, eta bost emakumeak; ume bat ere bazen.





Erreskatatu zituzten migratzaileak 'Aita Mari' ontzitik irtenda, Augustako portuan.

Erreskatea bukatuta, beste abisu bat jaso genuen 10:00etan, baina *Aita Mari*k 120 lagunentzat du lekua –ezin du kopuru hori gainditu, pertsona gehiago erreskatatuz gero, Palermon [Italia] atxikitzen baitute lau hilabetez–. Ontzia oraintxe martxan eta oraintxe geldirik zebilen, inguruan arrantza ontzi pila bat zeuden, baina horiek ez zuten ezer egin. Ontzira gerturatzea erabaki zuen *Aita Mari*ko taldeak, pertsona haiei salbamendu txalekoak, janaria eta ura ematea zein norabidea markatzea; izan ere, ezin genituen erreskatatu. Haiei laguntzen ari ginela, beste pare bat lantxa ere ikusi genituen 80-100 lagunekin; aurrera zihoazen. Itsaso ona dagoenean, denak batera ateratzen dira uretara, baina lau ontzitik bi besterik ez dira iristen berriz lurrera; eta asko Libiara itzularazten dituzte hango patruiliariek.

102 lagun haiek *Aita Mari*n sartzean, zer?

Denek erizaindegitik pasatu behar zuten aurrena, eta janaria eman behar zitzaien gero. Kapitainak eta 102 pertsona erreskatatu genituela eta portu seguru bat behar genuela eskatu zuten. Gertatzen dena da Libia ez dela portu segurua, eta beraz, Malta edo Italia gelditzen dira aukeran, baina Maltak ez du erantzun ere egiten. Izatez, erreskate bat egitea betebeharra denez, gertuen dagoen portu segurura eraman behar dira pertsona horiek, baina Tunez ez da Europa eta Libia ez da portu segurua.

Libiarekin zer gertatzen da?

Erreskate eremuan, lehenen iristen denak egiten du erreskatea, gertuen dagoenak, eta Libiarekin ez dago bromarik. Libiako patruiliariek dirua jasotzen

dute erreskatatu eta hara itzularazten duten ontzi bakoitzeko, eta Europak Libiari dirua ematen dio ontziak atera ez daitezten. Kontua da migratzaileak oso urduri jartzen direla ontzi gris bat ikusten duten bakoitzean, Libiako patruilariena dela uste dutelako, eta halakoetan, igerian ez dakiten arren, itsasora saltatzen dute; berdin zaie hiltzen baldin badira, Libiara ez dute nahi itzuli. Sarraski bat da. Orain, fluxua Libiara joan da, baina hangoa moztzen badute, Egiptotik aterako dira, eta handik ez bada, beste nonbaitetik. Lehen giza eskubidea, libre jaiotzekoa, ez dute bermatuta pertsona horiek.

Augustan (Italia) porturatu zineten. Zerekin egin zenuten topo?

Urrunen zegoen portura bideratu gintuzten. Ikaragarritzko portua da hura. Hara iritsita listo ginela uste nuen nik, eta denok oso pozik ginen. Ontzitik atera zituzten bakarrak ospitalera eraman beharreko pertsonak izan ziren, ordea; gainerako pertsona guztiei *Aita Mari* bertan egin zieten azterketa. Portu hartan zegoen leku pilarekin... Lau egunez itsasontzian egon ginen denok, eta egun horiek pasatuta eman ziguten moilara gerturatzeko aukera. Koronabirusa ere gurean genuen; hamalau lagunek eman zuten positibo. Orduak eman zituzten ontzian ziren pertsonak handik ateratzen, eta gazteak adin txikikoen zentro batera eta gainerakoak transatlantiko batera eraman zituzten berrogeialdia egitera. Izan ere, Italiak halako sei ontzi ditu kontratupean, eta horiei eguneko 50.000 euro ordaintzen dizkie. Kontuak aterata, hilean bederatzi milioi euro dira. Zenbat laguntza eman



Telleria erreskatatutako pertsonetako batekin.

**"EZ DUGU KONFORMISTAK
IZAN BEHAR, BAINA GUTXIAGO
KEXATU BEHAR GENUKE"**

**"USTE DUT JENDE GEHIAGOK
PROBATU BEHAR LUKEELA
ESPERIENTZIA"**

**"ERRESKATEAK EMATEN ZIDAN
KEZKA, BAINA HORIXE DA
ERRAZENA"**

daiteke dirutza horrekin migratzaile horiek ihes egin duten lurretan? Sorterrian bizi duten egoera dela-eta etortzen dira Europara; behartuta daude etortzera.

Oztopo nahikoa ez, eta COVID-19aren pandemia...

Surrealista zen guztia. *Aita Marín* koronabirusaren gune bat prestatu genuen, baina erreskatatuak ez ziren kabitu ere egiten. Oso gogorra izan zen hura. Dena den, Augustara iritsi ginenean une oso polit bat bizi izan genuen: han zegoen *Ocean Viking* erreskate ontzia gure zain, "Ongi etorri" zioen pankarta batekin. Hunkigarria izan zen. Gero, etxera itzuli aurretik, hamalau eguneko berrogeialdia egin behar izan genuen portuan, eta eguneko izugarri ordaindu behar izan zuen ISHak. Lurra ezin genuen ukitu, baina 200 metrora genuen. Ulergaitza zen guztia... Bost eguneko bidaia egin genuen etxera itzultzeko.

Zer harreman izan duzue erreskatatutako pertsonekin?

Errespetuagatik ez diegu ezer pertsonalik galdetzen, baina gauza asko jakin ditugu: emakume ia guztiak bortxatu egin zituzten, mutil gazte asko ere bai, torturak jasaten dituzte... Mafiek Libiako basamortuaren erdian utzi eta handik atxikitze zentroetara eramaten dituzte askotan. Eremu horiek ere mafiek kudeatzen dituzte, eta hori izaten da beraientzat gogorrena. Mafiek edozer egiten dute haiekin, eta pertsona horiek ez dute izaten ezer galtzeko, duintasuna ere galduta iristen dira. Mafiei dirua ordaintzen dioten pertsonak kostaldera eramaten dituzte, eta han esaten diete noiz atera behar duten itsasora, baina kostazainekin bat eginda egoten dira mafiak...

Europara iristean, zer oztoporekin egiten dute topo?

Gerran dagoen lurralde batetik datozen pertsonak asilo politikoa eskatzeko eskubidea izaten dute. Italian, adibidez, errefuxiatuen kanpamenduetara eramaten dituzte, legez kanpo sartu direlako hara; eta adin txikikoak, teorian, zentroetara.

Ahalegintzen omen dira familietako kideak elkarrekin mantentzen, baina askotan ez dira familiak izaten ontzian iristen direnak: gazteak banaka, emakumeak umeekin... Errefuxiatuen kanpamenduetako baldintzak nolakoak diren badakigu; ikusi besterik ez dago Kiosen-eta nola dauden. Europara iritsi eta bospasei hilabetetara elkarrizketa bat egiten diete migratzaileei, baina erantzuna elkarrizketatzailearen egunaren arabera izaten da: asilo baimena jasotzen dutenak zerrenda batean sartzen dituzte, eta, gero, Europako estatu bakoitzak zerrenda horietatik hartu behar lituzke migratzaileak. Kontua da



'Aita Mari' ontzian eraman zituzten salbamendu txalekoak.

elkarrizketa iristerako zentroetatik-eta alde egiten dutela askok, eta legez kanpoko munduan sartzen direla. Beste asko, berriz, mafiek harrapatzen dituzte, eta prostituziora bideratzen dituzte edo baldintza oso eskasetan aritzen dira lanean.

Eta zein da Europako estatuiek migratzaileak ez hartzeko jartzen duten aitzakia?

Europak banaketa ondo kudeatuko balu, ez litzateke arazorik egongo; hau da, migratzaile horiek guztiek ez lukete oraingo baldintzetan zeharkatuko Mediterraneo itsasoa. Pentsa, 500.000 milioi pertsona bizi gara Europan, eta migratzaileak milioi bat-edo dira... Ez dagoela horientzat lekurik? Begira, nire ama Frantziara joan zen gerra garaian, Eusko Jaurlaritzak lagunduta. Jaurlaritzak bazekien non zegoen, noren etxean egon zen, eta gerra bukatzean Euskal Herrira itzuli ahal izan zuen. Kasu honetan ere hala behar luke; hori bai, norberak erabaki behar du itzuli edo ez. Mugak kontrolatu egin behar dira, baina Europak hanka sartze ikaragarria egin du; izan ere, pertsonak etortzen segituko dute, eta zenbat eta gehiago gogortu baldintzak, are gehiago indartuko dira mafiak.

Eskuin muturraren diskurtsoa asko hedatu da Europan azken urteetan.

Hala da. Kiosen-eta arazoak sortu dira bertako bizilagunekin. Hasieran, boluntarioak oso ondo ikusita zeuden leku haietan, baina eskuin muturra hasi da mezu arrazista nazkagarriak zabaltzen, eta jendeak bat egin du horiekin. Boluntarioei nahiz proiektuei eraso egin diete; begira Zaporeaki zer gertatu zitzaion... Boluntarioek ezin izaten dute lasai irten kalera leku horietan. Baina horrelaxe

hitz egiten dugu. Lehengoan kalean gizon batekin egin nuen topo, eta hala esan zidan: "Zer egon haiz marokarrak hona ekartzen?"

Bizitako esperientziatik zer ikasi duzu?

Ondo bizi garela banekien lehendik, baita heriotza gertu dugula ere. Baina pertsonak beste modu batean tratatu behar ditugula uste dut. Eta ez dugu konformistak izan behar, baina gutxiago kexatu behar genuke. Giza eskubide oro aldarrikatu behar da, baina gogoratu pertsona askok ez dituztela oinarri-oinarrizko giza eskubideak bermatuta. Hainbeste gauza ikasi ditut... Meritu ikaragarria dute ISHko kideek, egunero-egunero lanean aritzen direlako; izan ere, lan ikaragarri egin behar da lehorrean. Benetako misioa hemen dago.

Errepikatuko al zenuke esperientzia?

Denborarekin, bai. Esperientzia aberasgarria izan da, oso. Uste dut jende gehiagok probatu behar lukeela esperientzia. Hunkituta itzuli nintzen, eta hala jarraitzen dut. Hori bai, han egon arte ez dakizu zein den errealitatea; asko kontatuko dizute, baina bizitzea beste kontu bat da. Erreskateak ematen zidan kezka, baina horixe da errazena; protokolo oso zehatza dago eta badakizu zer eta nola egin behar duzun. Egoera ez zitzaigun gainera etorri, baina buruak eta bihotzak lan handia egiten dute. Izen-abizenak, maitasuna, begiradak, usainak... dena zurekin geratzen da. Nik zorte handia izan dut esperientzia hori bizitzeko aukera izan dudalako. Une gogor asko pasatu genituen, baina lehorreratzeko egunean behea jo nuen; haien besarkadak, negarrak. ■■■



NAGUSIA 81 • 943-08 30 32
www.tta-kun.com • azkoitia_ttakun@hotmail.com

ZERBER BURDINDEGIA

BEHAR DUZINERAKO ALDI GUZTITAKO GAJAK AURKITUKO
DITUZU GURE BURDINGIAN: INDUSTRIA, ELEKTRIZTATEA,
MARGOLARITZA, ETXEA, ITURGINTZA, BISKOLAJEIA
ETA ABARREKO TREBNERIA; HALA NOLA, TOPLOJUAK,
ERRORDAMENDUAK, SAPRAILAK, GILTZAK, ETA ABAR...

ZERBERREN "ZER BER ETA HURAXE"

NAGUSIA: 99 - 20700 AZKOITIA - 638 35 91 26
www.fensterizerber.com



Florea
SALESTARI IKASTETXEA
FAMILIAK ETA IKASTETXEA,
BAT EGINDA HEZTEN
KONFIANTZAREN PEDAGOGIA
*Zatoz, ezagutu gaitzazu
beasleak zozkatzeko zatiaren
gaitza konfiantza dagoelako*

izanaraz 2/g-AZKOITIA
943-85 30 43 • florea@floreaeus.com
www.floreaeus.com

zurt

OSPARTIDIAK
SANDWICHAK ETA HAMBURGESAK
ENTZALAK
PASTAK
GARRADAKO ETA ARDO ESKANTZA ZABALA
TEREFAZA HANDIA ZUZENENGO EMANALDIAK

KALE NAGUSIA, 68 • 943-85 12 75

LATZ

TABERNA

ARTISAU PIZZAK
ENTZALAK
PASTAK
PLATZIKONBINATUAK
RACION
OGITARTIDIAK
ARDO ESKANTZA ZABALA
SOLU ETA ANGI EKOPI
PAREGABEAK
LAPURGATETAN 00.00 ATTEBERRITA

KALE NAGUSIA, 55 • 943-85 13 19

Non dago Zakelmari?



Apirileko Maxixatzen aldizkarian Zakelmari non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 36. orrialdean zegoen ezkutatuta. Maxixatzeneko bazkide guztien artean zozketa egin ondoren, Patxi Agirrebeña bazkideari egokitu zaio Herrixen merkatarik elkarrekin emandako 50 euroko erosketa bonoa, haren izenean Sarai Agirrebeña jaso du bonoa. Datorren hilean, Ogi Berri okindegiaren zortzi lagunentzako tarta zozkatuko du Maxixatzenek Zakelmari aurkitzen dutenen artean. Bidali erantzuna maiatzaren 21a baino lehen, Kultur Etxeko postontzira edo maxixatzen@maxixatzen.eus helbide elektronikora.



"Gauza gutxi dira ipuin bat ondo kontatzea bezain gauza sotilak"

ODEI ARREGI KALE ANTZERKILARIA ETA IPUIN KONTALARIA

Sortzea du gustuko Odei Arregik, eta sortutako hori jendearekin elkarbanatzea. Kale antzerkilaria, clowna, ipuin kontalaria, idazlea... da. Bapatean Zirko konpainiako kidea da, eta kale antzerkiko lan berria sortu dute orain gutxi: 'Adabaki'.

Testua: **Aitziber Arzallus**. Argazkiak: **Aitziber Arzallus eta utzitakoak**. Marrazkia: **Gorka Larrañaga**.

Kale antzerkilaria, clowna, ipuin kontalaria, idazlea... horiek guztiak eta gehiago da Odei Arregi (Azkoitia, 1984), baina ez da kapaz bere buruari etiketa bat jartzeko. "Askotan galdetu izan didate zer naizen, zer lanbide dudana, eta sekula ez naiz gai izan erantzun bat emateko". Badaki sortzea gustatzen zaiola, sortutako hori jendearekin partekatzea, eta, ahal dela, kalean. "Zeuk sortu duzun zerbaitekin publikoarengana iristen zarela sentitzeak ez dauka parekorik".

Ez pentsa artista izatea umetako ametsa zuenik. "Zer izan nahi nuen galdetzen zidatenean, albaitaria esaten nuen, eta bolada batean baita moja ere. Izeba bat moja da, eta hura bisitatzeraz joaten ginenean, primeran bizi zela iruditzen zitzaidan". Probatu ere, hamaika gauza probatu zituen umetan. "Marrazketara joaten nintzen, irakasleak ez nuela balio esan zidanera arte; gimnastika erritmikoan ibili nintzen, baina handik ere bota egin ninduten...".

Batxilergoa bukatuta, Artearen Historia ikastea erabaki zuen, eta Gasteizera joan zen unibertsitate ikasketak egitera. Garai hartan piztu zitzaion artista sena, baina ez Arabako hiriburuan zela, Granadan (Andaluzia, Espainia) zela baizik. "Ikasketa programa batekin, Granadara joan nintzen urtebeterako, eta han mundu berri bat ireki zitzaidan. Eguraldi onak lagunduta, sekulako giroa

egoten zen kalean, gazte pila bat era guztietako jarduerak egiten, eta han hasi nintzen zirkuari lotutako jardueretan interesatzen". Gasteizera bueltan, horretan aritzen zen talde bat topatu zuen, eta haiekin elkartzen hasi zen.

Unibertsitate ikasketak bukatuta, irakasle izateko titulua atera zuen, baita AEK-ko irakasle izatekoa ere. "Lanpostu normal bat izateko prestatu nintzen, baina sekula ez dut irakasle lan egin". Ordurako gehiago erakartzen baitzuen zirkuak eta dagoeneko gurpil hartan biraka hasia baitzen. Uda batean, kalean emanaldiak egiten ibili ostean, hura gustatzen zitzaiola ikusita, prestatzen hastea erabaki zuen. Kontrako bidea egin zuela dio, "lehendabizi jendaurrera atera, eta gero prestatzen hasi". Garai hartan, ordea, ez zegoen oraingo erraztasunik. "Zirku eskolarik ez zegoen, ezta Interneten gaur adinako eskaintzarik ere". Elkarri irakasten zioten, elkarrengandik ikasten zuten, eta inguruan topatzen zituen ikastaro guztietan ematen zuen izena. "Auskalo zenbat ikastaro txiki egin ditudan, baina paper bat bera ere ez daukat Odei Arregi arte eszenikoetan aditua dela dioenik".

Gustuko munduan murgilduta, ezeri uko egiterik ez nahi, eta zalantzak izan zituela aitortu du. "Zirkuaren barruan diziplina pila bat jorratzen dira, eta hasieran komeni izaten da denetik probatzea, baina iristen da puntu bat zerbaitean espezializatu behar izaten dena, eta nik ezin erabaki, denetik





egitea gustatzen baitzitzaidan". Horregatik, pailazo izateko bideari heldu zion, "denetik egiteko aukera ematen duelako, ezertan oso ona izan beharrik gabe". Eta asmatu zuela dirudi, harrezkero horretan baitabil Bapatean Zirko konpainian.

Duela hamahiru bat urte laukote gisa abiatu zuten proiektuari bikotean eusten diote Israel Cuadrado eta biek. "Bikote gara lanean, bikote maitasunean eta guraso ere bagara; beraz, patxadaz hartzen ditugu gauzak". Hori bai, guraso izan zirenean erabaki batzuk hartu behar izan zituzten. "Europar zerbait ibilitakoak gara, eta Espainian dezente ibiltzen ginen lehen, baina guraso izan ginenean erabaki genuen Euskal Herrian barrena bakarrik mugituko ginela; goizean etxetik irten eta gauean etxeratzeko moduko lanak hartuko genituela".

Ondo doakie horrela, eta horren erakusgarri da orain gutxi estreinatu duten ikuskizuna: *Adabaki*. Iazko martxoan estreinatzeak ziren, baina pandemia iritsi zen, eta harekin, geldialdia. Harrezkero egin dituzte emanaldi batzuk, baina ez zaizkio gustatzen oraingo baldintzak. "Kaleak duen berezko xarma erabat puskatu dute indarrean dauden neurriek. Pandemia aurretik, publikoa oso gertu izaten genuen, zirkulu itxian, haien arnasa ere sentitu egiten genuen; orain, askoz hotzagoa da dena. Emanaldia eguerdi partean bada, musukoa eta betaurreko beltzak jantzita dituen publikoa izaten dugu aurrean; maskara batzuei ari garen sentipena izaten dut". Hala ere, kalea nahiago du antzokia baino. "Egia da antzokitik dena alde izaten dela: argiak, tenperatura, isiltasuna, jendearen prestutasuna... Baina antzoki batera joan egin behar da. Kalea, berriz, askoz irekiagoa, askeagoa da, era guztietako publikoa nahasten da, eta hori da niri gustatzen zaidana".

Ipuinetan murgilduta

Kalean aritzeak asko betetzen badu, bada horrek adina motibatzen duen beste gauza bat: ipuinak

kontatzea. Horretan ere, ez da gaur goizean hasitakoa. "Aspalditik egin nahi nuen, eta duela hamar bat urte, ausartu egin nintzen". Ordutik, Euskal Herriaren luze zabalean zientoka ipuin kontatutakoa da, eta beste horrenbeste ume aho zabalik utzitakoa, baina sekula ez zaio ahaztuko lehenengo aldi hura. "Maeztun (Araba) izan zen eta desastre hutsa izan zen. Haur guzti-guztiek alde egin zuten, eta gurasoei ipuinak kontatzen bukatu nuen". Orain barre egiten du; "une hartan, ordea, negargurea galanta". Hala ere, ez zuen etsi. "Ezin nuen etsi. Kristoren ilusioa neukan ipuinak kontatzeko, sekulako lana hartu nuen dena prestatzeko, eta behin gaizki atera zitzaidalako ez neukan amore ematerik". Handik astebetera beste saio bat muntatu zuen. "Lagunak eta haien umeak gonbidatu nituen, eta bigarrena hobeto joan zen".

Atzera begira jarrita, badaki izugarri hobetu duela. "Lehen, traste pila bat hartuta ateratzen nintzen ipuinak kontatzera, babesak behar nituen; orain ia ezer gabe irteten naiz, ia biluzik ateratzeko gai naiz". Esperientziak eman dio konfiantza, baita Arabazan Arabako ipuin kontalarien elkarteak ere. "Itxialdi garaian hasi ginen zazpi ipuin kontalari elkartzan, hasieran bideodei bidez, orain aurrez aurre, eta niretzako sekulako oparia izan da. Gauza pila bat ikasten ari naiz, adibidez, ipuin berari matiz diferenteak ematen"

Odei Arregi

- **Adina:** 37 urte.
- **Ikasketak:** Artearen Historia ikasi zuen eta irakasle izateko titulua ere badu.
- **Lanbidea:** artista.
- **Artista ez banintz...** nekazaria.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** musika entzutea.



Ikuspegia zabaltze horrek sekulako bultzada eman dio ipuinak kontatzen jarraitzeko. “Ipuin kontalariona oso ofizio bakartia da: ipuinak bakarrik aukeratzen dituzu, emanaldiak bakarrik prestatzen dituzu, bakarrik joaten zara ipuina kontatu behar duzun lekura eta bakarrik bueltatzen zara etxera. Ipuinak kontatzeko ikastaroak, egon, badaude, baina sekula ez dut haietako bat egin, eta sekula profesional baten aurrean ipuin bat kontatu gabe nintzen. Orain, ordea, badakiten sei lagunen aurrean aritzeko aukera daukat astero, eta urrea dira niretzat haiek egiten dizkidaten kritikak eta ematen dizkidaten aholkuak”.

Horri esker, idazten hasi da berriz. “Garai batean poesia eta helduentzat ipuinak idazten nituen, baina aspaldiko urteetan utzita neukan dena. Arabazanen hasiz gero, berriz hasi naiz idazten, orain haurrentzako ipuinak, neuk kontatzeko helburuarekin”. Eta urrats hori egitera ere ausartu da dagoeneko: aurtan hasi da berak idatzitako

ipuinak jendaurrean kontatzen, eta funtzionatzen dutela ikusteak “sekulako poza” eman diola aitortu du. “Dena dela, beti esango dut gauza gutxi egongo direla ipuin bat ondo kontatzea bezain gauza sotilak eta zailak”.

Etorkizunaz galdetuta, orain artekoekin jarraitu nahiko lukeela dio, alegia, Bapatean Zirko konpainiarekin eta ipuin kontatzen herriz herri; baita AtauriArt jaialdia antolatzen ere. “Orain Ozetan (Araba) bizi gara, baina aurrez Ataurin bizi ginen, Arabako mendialdeko herri txiki batean, eta han, herrikideekin batera, AtauriArt antolatzen hasi ginen duela hamar bat urte. Antzerkia, zirkoa, clowna, musika eta abar batzen dituen jaialdia da, oso jaialdi berezia, eta horri eutsi nahi genioke”. Horiez gain, sortze bidean diren bi proiektu aipatu ditu: Basotuz eta txotxongiloen ikuskizun bat. Eta bukatzeko, pandemiagatik emateari utzi behar izan dion ikastaroei eta tailerrei berrekitea nahiko lukeela esan du. Egonean egoteko asmorik ez du beraz. ■

GARAJE
AXIRI

**MARKA GUZTITAKO AUTOAK
KONPONTZEN DITUGU**

Astelehenetik ostiralera:
08:30-12:30 / 14:30-19:00
Larunbatean itxita

Classic

San Joan, Axiri 13
20720 AZKOITIA (Gipuzkoa)
Tel. 943-85 04 11 - 674 09 19 62

OSKAR BERNAL GOMEZ
talleraxiri@gmail.com




Pareak bai!

Afrikako animalia ugari ezagutzen duzu. Froga ezazu orain, zenbat dakizun zure inguruko zuhaitzez. Lotu zuhaitz bakoitzari dagokion fruitua.



Sudokua



Ezagutzen al duzu udaberria esateko beste modurik? Beharbada zure herrian ez, baina BEDATSE ere esaten zaio, edo BEDATS. Osa itzazu sudokua lau zuriak BEDATS hitza osatzen duten letra kontuan hartuta (B, E, D, A, T eta S). Gogoratu, sudokua zuzena izan dadin, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta are bakoitzeko.

IKUSI-MAKUSI

Horra gure aitona-amonen aitona-amonek beren haurtzaroan landatutako zuhaitza. Ikaragarri handitu da, ezta? Eta gainera, paisaiaren antzaldaketaren lekuko isila izan da. Ezer ez da lehen bezalakoa, baina badira hainbat elementu bi inurrietan ageri direnak. Bederatzi dira. Ikusten al dituzu?



Labirintoa



Etxe-txolarneak beheko teilatupean egin nahi du habia. Lagun iezaiozu harsino heltzen. Hurretarako, habia egiteko baliatuko dituen elementuak jarraitu beharko dituzu, orden honetan: belarra (1), hosto lehorra (2), lastoa (3) eta luma (4). Gogoratu laukiak banan-banan aurreratu behar direla, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina inoiz ez diagonalean.



Aurkitu duzu bidea? Hala bada, laukiz lauki pasa dituzun hizkiak batu eta esatera zahar bat osatuko duzu:



Handitik txikira

Zazpi hosto hauek denak indigaztainondoarenak dira. Ordena itzazu handitik txikira, handienari 1 zenbakia emanez eta txikienari 7.



Itzala

Margatu erlea eta arrosa eta aurkitu itzal zuzena.



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/



Bizitzeko poza eman dio bidaiatzeak

Sei hamarkada egin behar da atzera Aldalur autobus enpresaren historia gertutik ezagutzeko. Hain zuzen ere, 1960. urtean jarri zuten martxan autobus enpresa Maritxu Errazkinek eta bere senar Roque Aldalurrek. Errazkin autobusak gidatzen hasi zen lehen emakumeetako bat izan zen inguruotan, eta ordutik, gelditu ere egin gabe ibili da han eta hemen.

Testua: **Andoni Elduaiei Soraluze**. Argazkiak: **Andoni Elduaiei Soraluze eta utzitakoak**.

Roque Aldalurrek eta Maritxu Errazkinek ezkondu eta denbora gutxira jarri zuten Aldalur autobus enpresa martxan. Gainera, bitxia bada ere, Errazkinek bere senarra ibilgailu baten bueltan ezagutu zuen. "Nire senarra lehen taxistetako bat izan zen Azkoitian. Ezkondu aurretik taxia zuen hark, eta nire ahizparen ezkontzarako taxia eskatu genionean ezagutu genuen elkar". 60 urte pasatxo daramatza Azkoitian bizitzen

Errazkinek, eta beste horrenbeste Aldalur autobusen bolanteekin harremanak. Gaur gertatu izan balitz bezala azaltzen du Errazkinek nola eta zergatik zabaldu zuten autobus enpresa. "Senarrak Alfa Romeo furgoneta bat erosi zuen, eta hura autobus bihurtu behar zuela esanez iritsi zen etxera egun batean. Ordezko piezekin-eta egiten zuen lan senarrak. Lantegi bat zuen eta pieza haiek saltzen ibiltzen zen. Lan haietan zebilela, furgoneta bat erosi eta 'hau autobus jarri behar dugu' esan zidan", hasi da Errazkin enpresaren hastapenen inguruan hizketan.

Aldalurrek Alfa Romeo furgoneta hura autobus bilakatu zuen denbora gutxian. "Hamar lagunentzako prestatu zuen, eta segituan jarri genuen errepide gainean", azaldu du Errazkinek. Ibilgailu batek autobusaren izendapena izateko, hamar lagunentzako tokia izan behar du, eta Aldalurrek baldintza hori bete zuen enpresa martxan jartzeko. Ibilgailu txikia izan arren, itxura onekoa prestatu zuela esan du Errazkinek. "Erosi zuen furgoneta txikia zen, baina oso polita ipini zuen. Autobus izateko baldintzak betetzeko gehigarri guztiak jarri zizkion: mahaiak, hozkailua eta kafetegia". Gainera, bi hilabeteren buruan hiru autobus izatera iritsi zen Aldalur, segituan erosi baitzuen bigarren furgoneta senarrak. Furgoneta hura "lehenaren berdina" bazen ere, "xumeagoa" zen. Erosi zuten hirugarren ibilgailua, berriz, Perkins markakoa zen. "Hiru ibilgailu haiekin martxa handia izan genuen", nabarmendu du. Aurrerago, aldiz, Barreiros markako autobusa erosi zuten, eta "oso txarra" ateraz zitzairen hura. "Ia porrot egin genuen autobus harekin, beti matxuratuta zegoelako. Lehendabiziko Barreiros Pegaso autobusak oso txarrak ateraz ziren. Gero, asko hobetu zituzten, eta egun ezagunak dira mundu mailan".

"Eskaera handia" zutelako jarri zituzten martxan hiru autobusak; izan ere, ibilgailu aldetik Azkoitiko ordutegiko panorama ez zen gaur egungoa bezalakoa. "Ez zegoen ia autobus zerbitzurik hemen. Donostiarako zerbitzua bakarrik zegoen martxan, eta hura ere oso maiztasun gutxiarekin; izan ere, Azkoititik Donostiara joaten zen autobusak egunean bidaia bat egiten zuen, eta berdin Tolosara". Urolako trena martxan zegoen, baina 1988ko otsailean eten zituen bidaia behin betiko. "Trena gelditu zutenean, hura berriz martxan jarri arteko akordioa sinatu nuen Gipuzkoako Foru Aldundiarekin; Zumaia eta Zumarraga arteko autobus zerbitzua eskaintzeko baimena eman ziguten. Trena, ordea, ez dute jarri, eta guk utzi genion zerbitzu hori eskaintzeari".

Errazkinek adierazi du eskaria "handia" zela Azkoitian, baina herritarren aldetik jasotako erantzuna ere ikaragarria izan zela. "Erantzuna oso ona izan zen. Zegoen eskari guztiari erantzuteko autobus bakarra ez zen nahikoa, eta horregatik prestatu genituen



Alfa Romeo - Fadalisa 1960



Perkins 1962



Urko Irizar Pegaso 1979



Everest Irizar Mercedes O303 1982-83



Carcer
Mercedes O409D 1984



Dragon Irizar
Scania 1987



Everes Irizar
Scania K112 1988



Miniplus Obradors
Mercedes MB180 1989



Pony Irizar
Man 1989



denbora gutxian hiru autobus. Udan, berriz, bidaia luzeak egiten genituen. Lehen bidaia Espainian egin genituen, Andaluzia aldera eta; baina Europara ere segituan hasi ginen antolatzen". Errazkinek dio Andaluzia beti izan dela jendearen gustukoa, "eguraldi epelagatik eta hondartzengatik". Horren baitan, Errazkinek gaineratu du Euskal Herriko klima "asko epeldu" dela urte gutxian.

Urte asko gidatzen

Autobus enpresa ireki eta berehala hasi zen Errazkin Aldalurreko autobusak gidatzen. Enpresa martxan jarri zutenean, Errazkinek "denetik" egin behar izaten zuen. Autobuseko gidabaimena ere segituan lortu zuen. "Autobus gidariak behar genituen etxean. Behin, gizon bat etorri zen gurera, eta hark C mailako gidabaimena zuen, kamioiak gidatzekoa; baina autobusak gidatzeko D mailakoa behar da. Kamioienak balio ez zionez, D gidabaimena atera beharko zuela esan genion, eta segituan hasiko zela erantzun zigun. Bi aldiz saiatu zen arren, ez zuen atera. Orduan, azterketa ezin zuela gaingitu eta enpresan bestelako lanen bat eman beharko geniola esan zigun. Gainera, azterketa hura probatzera joateko esaten zidan, orduan ikusiko nuela-eta gaingitzea zein zaila zen. Hala erabaki nuen gidabaimena ateratzen hastea". Senarrak gidabaimenaren beharrik ez zuela esaten zion Errazkini, baina "azterketa nolakoa zen ikusteko", joan egingo zela erabaki zuen. Aurrenekoan atera zuen autobuserako gidabaimena, Bilbon. "Harrezkero, nire gustuko lana izan da gidatzea, sekula ez dit eman alfergurarik", kontatu du. Errazkinek gidabaimena atera zuenean, oso arraroa zen Azkoitiko kaleetan ibilgailuak ikustea. Autorik ez zegoen herrian, eta noski, gidariak ere oso gutxi. "Azkoitian bi edo hiru auto egongo ziren, Zelaiarena eta beste bakarren batena".

Hasieran, autobus gidari baino taxi gidari gehiago ibili zen. "Autobusak gidatzeko baimena izan arren, eskaera handiena taxiarekin zegoen eta. Langileekin ere ibiltzen nintzen; izan ere, taldetxo bat bazen egunero hemendik Beasainera lanera joaten zena. Haiek izan ziren nire aurreneko lanak".

Orduko errepideak ere "lasai-lasaiak" zirela gogoan du Errazkinek. Baina errepide txarrak ere zapaldutakoa da: "Orduan, bazeuden Zumarragara bidean maniobrak egin beharreko bihurguneak; pentsa, zer izaten zen bi auto aldi berean parean egokitutakoa".

Zazpi seme-alabak hazi, enpresako administrazioko kontuak egin eta gidatu egin behar izaten zuen Errazkinek: "Etxeko *komodina* izan naiz". Seme-alabak hezte eta lana uztartzea egokitu zitzaion enpresaren lehen urteetan. "Lan oso zaila izan zen. Nire beldurrik handiena izaten zen iluntzean etxera iristea, umeei afaltzen ematea, eta haiek bainatzea nahiz lotaratzea. Sekulako lana zen, baina gaztea nintzen, eta egin egiten nuen".

Eskoletako haurrekin ere urte askoan egin zuen lan Errazkinek. Maitasun bereziz oroitzen ditu mendi auzoetatik herriko eskoletara eramaten zituen ikasle txiki haiek. "Egin dudan lanik ohikoena izan da hori. Azkoitian, Zestoan, Zarautzen... ibili naiz horretan. 1965. urtean, Zestoan hasi ginen eskoletara haurrekin joan-etorriak egiten; mendi auzoetatik ikasleak Zestoara eramaten genituen. Herri askotan ibili izan ginen garraio lan horretan".

Bidaia bidaiaaren atzetik

60 urteko ibilbideak bidaia asko egiteko beta ematen du. Europa guztia ez, baina ia guztia zeharkatuta du Errazkinek. "Lehen bidaia luzeak Extremadurara hasi ginen egiten. Han zerbait egiteko beharra zuten pertsonak eramaten genituen hemendik; gainera, bestelako aukerarik ere ez zuten hara iristeko; Serena eskualdera joaten ginen gu. Gure bitartez beren herrietara joateko aukera ikusi zutenean, eskaerak jasotzen hasi ginen". Halere, Errazkinek dio ez zela bidaia motza izaten. "24 ordu pasatzen genituen Extremadurara arteko 800 kilometroko bidea egiten, bideak zein ibilgailuak egungoak baino kaskarragoak ziren, eta orduko 40 kilometroko abiaduran joaten ginen".

Loiola Bidaiak izeneko bidaia agentzia ere ireki zuen Errazkinek, nahiz eta egungo egoeragatik orain itxita duten. "Bidaiak geuk antolatuta ahal izateko legezkotasuna izan genezan ireki genuen agentzia; izan ere, aurretik Bilboko beste agentzia baten bidez antolatzen genituen bidaiak". Errazkinek iritziz, "desberdina" da bidaia norberak antolatutakoa denean. "Guk eskatutakoa ematen ziguten beste agentziek ere, baina gurea ireki genuenean gure gustuko bidaiak hasi ginen egiten". Azkoitian, halaber, Errazkinek ireki zuen lehen bidaia agentzia. "Aurretik herrian ez zegoen beste bidaia agentziarik; geu izan ginen lehenak". Bezeroek eskatutako bidaiak eta agentziaren bitartez prestatzen dituzten bidaiak egiten dituzte oraindik orain Aldalur enpresan. "Toki bereziak aurkitzen saiatzen gara, ikusteak pena merezi duen leku erakargarriak. Espainiako zirrikitu guztiak ikusita ditugu, behin baino gehiagotan joan baigara leku guztietara". Era berean, Errazkinek gustuko du joandako herrialde bakoitzetik hango produktu bereizgarriak etxera ekartzea. "Joaten garen leku bakoitzetik han duten gauzarik bereziak ekarri ohi dugu etxera". Hori baino gehiago ere egin izan dute, ordea, bidaietan. "Joan izan garen leku guztietan herrialdean bertan ohikoa den afari bat egitea gustatzen zaigu. Ikaragarria izaten da une hori". Europa guztiko ia herrialde guztiak zapaldu ditu Errazkinek, baina baditu oraindik ere bidaiak antolatzeko herrialdeak mapan borobilduta. "Irlandarako bidaia dugu buruan, baita Greziakoa ere. Ea egoera hau gainditzen dugunean bidaiaitzeko moduan garen".

Errazkinek diotenaren arabera, "talde batua" joaten da beraiekin udan bidaiaitzera, eta horien inguruan ere solastu nahi izan du Azkoitiko bizilagunak. "Urte askoan antzerako jendea joan izan gara bidaia egitera. Tartean izango ziren kide berriak ere, baina, udako bidaietan urte askoan pertsona berak ibili gara".

Errazkini oso zaila egiten zaio egin dituen bidaia guztien artetik bat aukeratzeko. "Ahalko banu, bidaia guztiak aukeratzeko nituzke. Halere, ikaragarri gustatu zitzaizkidan Kroazia azkeneko aldiz joan ginenean. Errusia ere oso berezia da". Bidaien ondorioz, gainera, jende ospetsu askorekin egin du topo. "Espainiako Letizia erregina ezagutzeko aukera izan nuen, kazetaria zen garaian. Guk garraio kongresu bat izan genuen Asturiasen [Espainia], eta bera kongresu hura lantzerantz joan zen kazetari moduan, eta harekin hitz egiteko aukera izan genuen. Jose Maria Aznar Espainiako presidente ohiarekin ere hitz egindakoa naiz presidente izendatu aurretik.





Maritxu Errazkin, autobusaren bolantean.

**"NIRE GUSTUKO LANA
IZAN DA GIDATZEA,
SEKULA EZ DUT IZAN
HORRETARAKO
ALFERGURARIK"**

**"NIRE SALTSA
AUTOBUSEN
EGUNEROKOAN DAGO,
ETA HORI EZIN DUT
UTZI"**

Horrez gain, Pio XII. aita santuarekin egoteko aukera ere izan nuen. Eskolatik Erromara [Italia] joan behar izan genuen, eta ni eraman ninduten eskolako ikasle onena bezala. Ikasle isila nintzen, eta ondo portatzen nintzen; izan ere, ez genekien erdaraz, eta isilik egotea erraza izaten zen orduan guretzat".

Autobus barruko lana

Autobusak ikaragarri aldatu dira azken urteetan. Lehengo eta oraindo irudiak alderatzea nahikoa da horrekin jabetzeko. Errazkin bera ere bat dator aldaketa egon dela baieztatzerakoan. "Gure lehen autobusei bolantea mugitzea ere kostatu egiten zen, gogor-gogorak ziren, eta orain, behatz batekin bakarrik mugitu daitezke. Gaurko autobusek, gainera, botoi pila bat dituzte". Lanik handiena botoi bakoitzak "zertarako balio" duen jakitea dela dio, baina, bestela, "dena" erraztu dela. Nabaritu duen beste aldaketa bat ere gogorarazi du. "Gogoan dut, martxak aldatzeko palanka luze-luzea izaten zutela lehengo autobusek, eta geuk ere eserlekutik luzatu egin behar izaten genuen martxak aldatzeko". Halere, Errazkinek dio azken-azkeneko autobusak erabili ohi izan dituztela beren enpresan, jakinarazi du Irizar enpresaren bi solairuko autobusa erosten lehenak izan zirela Espainiako Estatu osoan. "Dragon izeneko modeloa zen, eta maitea genuen. Oso dotorea zen eta atentzioa deitzen zuen joaten ginen leku guztietan".

Autobuseko gidari ona izateko bezeroekin "ondo eramaten" jakin behar da haren ustez. "Era guztietako pertsonak garraiatzen dira, eta pazientzia eta umore ona behar dira. Pentsa, umeak eskolara eramaten nituenean, eskolako lanak egiten ere laguntzen nien bati baino gehiagori".

Lanean etenik gabe

Aldalur enpresan sortzen diren eguneroko lantxoak egiten jarraitzen du Errazkinek gaur egun. Autobusa, berriz, iaz alarma egoera ezarri aurretik hartu zuen azkenekoz. 2019. urtean, esaterako, Eskozian eta Benidormen izan zen, eta bidaia haien "oroitzapen zoragarriak" ditu gordeta. Benidormera (Herrialde Katalanak), gainera, beste autobus gidari batekin bolantean txandak eginez joan zen. Hura izan zuen bolantean bere azken lanetako bat; izan ere, iaz udan geldirik egon behar izan zuten. Errazkinek argi du: "Bidaiatzeak orain naizen guztia eman dit, bizitzeko poza eman dit". Urte askotan lan asko egindakoa da Errazkin, eta 2003. urtean, Laneko Merezimenduaren Domina eman zion Espainiako Gobernuak.

Egin duen lana "gustukoa" izan duela azpimarratu du Errazkinek, eta aukera izango balu, berriz autobus gidari lana hautatuko lukeela. "Erraz egin dut lana eta jarraitu egingo dut. Osasuna eta lanerako aukera baldin badaude, segitzeko prest nago ni. Ahizpa batek esaten dit, zergatik ez naizen jubilatzen eta honekin ahazten. Nire saltsa, autobusen egunerokoan dago, eta ezin dut utzi. Jakina, beste enpresa batentzako egin behar izan banu lan ez zen horrela izango, baina etxerako lan eginda, desberdina da". Esaerak dioen moduan, gustuko lekuan ez dago aldaparik, ezta Errazkinentzat ere. ■

AZKOITIAK

bat gehiago



**BATU MAXIXATZENEN PROIEKTURA,
BATZEN GAITUENA GARA!**

Egin zure ekarpena: bazkide@ukt.eus - 943-81 38 41

"Irteteko eta bidaiatzeko gogoz gaude denok, eta ea uda polita izaten dugun"

IRENE ELORZA

TESTUA: NEREA URANGA

Kazetaritza eta Informazio Zientziak ikasi zituen EHUn Irene Elorzak (Azkoitia, 1972), eta horri lotuta Erasmusekin Italian egin zuen egonaldia, Urbinon, Le Marche eskualdean. Sukaldean egitea baino, jatea gustukoagoa duela dio Elorzak, eta Italiako ikasle sasoiari bi gauza erraz besterik ez zituela ikasi prestatzen: tiramisua eta crostiniak. "23 urterekin ikasi egiten genuen, baina juntadizo asko egiten genituen. Han ikasi nuen tiramisua prestatzen; erraza da egiteko, ez du laborik behar eta oso goxoa da".

Italia eta hango kultura "asko gustatzen" zaizkiolako aukeratu zuen lurralde hori ikasketak egiteko. Erasmusekin Italian egon ondotik, ia urtero bidaiatu du hara. "Askok gustatzen zait, lagunak ditut han eta bidaiak ez dira oso garestiak". Han ezagututako tokietatik bat nabarmentzea oso zaila dela dio, baina esan du bat: "Iazko urrian, Liguria kostaldean, Cinque Terren egon nintzen. Bost herri txiki eta polit dira, itsasertzean zintzilik daude eta mahastiz inguratuta. Haietara joateko errepidea badago, baina ez dute irekitzen kanpokoentzat; beraz, trenez mugitu behar da. Genoba bera ere ezusteko ederra izan zen, asko disfrutatu nuen".

Italiarrak oso lagunartekoak direla dio azkoitiarrak. "Bizitzaz gozatu egiten dute, eta gu bezala festazaleak eta lagunartean elkartzekoak dira". Gastronomia edota jatekoari buruz, han bertako produktuak asko zaintzen dituztela azpimarratu du Elorzak. "Bertako baratzeetako produktuak-eta asko zaintzen dituzte; edozein lekutan jan daitezke sukaldaritza tradizionaleko jakiak, ondo eginda, eta ez oso garesti". Kultura aldetik, Italiako zinema jarraitzen du batik bat. "Italiako filmaren bat ekartzen dutenean hona, italieraz entzuteko plazeragatik bakarrik joaten naiz ikustera. Musika aldetik, berriz, Italiako musika klasikoa eta kantautore zaharrak entzun ditut batik bat". Oso zinemazalea da Elorza, eta Donostiako Zinemaldiaren azken lau edizioetan han jardun du lanean: "Zinemaldiak irauten duen garaian, hango egunkarian egiten dut lana. Zinema da nire beste pasioetako bat".

Hainbat urtez kazetaritzan lan egin ondoren, orain Donostia Turismoan ari da lanean. Egungo egoeran turismo arloa da eragin ekonomiko nabarmenena jasaten ari dena, eta hori gertutik bizi du Elorzak. "Askok aldatu da dena. Izurriaren aurretik Donostia saturatuta zegoela esaten zen, arazoa bihurtzen ari zela

zenbait herritarrentzat, eta, orain, berriz, dena faltan botatzen da. Jende gutxi dabil, negozio asko ixten ari dira eta aktibitatea asko moteldu da". Donostia Turismoaren hiru ardatz nagusiak gastronomia, kultura eta ingurunearekin lotutako ekintzak direla dio. "Egoera honen aurretik, Frantziatik etortzen zen jende asko egunpasa; ondo jan, edan eta erosketak egitera. Ameriketako Estatu Batuetatik, Alemaniatik eta Australiatik ere etortzen ziren bisitariak, eta haiek jatetxeetan jateaz gainera, kulturarekin eta naturarekin lotutako ekintzei buruz galdetzen zuten: mendia, surfa...".

Hilabeteotan, bisitarien faltan, bertakoentzako informazioa moldatu dute batik bat. Donostia Turismoan barruko nahiz kanpoko jarduera egokitu dute egoerara, eta komunikazio kanalak "erraztu eta zabaldu" dituzte. "Lehen whatsapppe, posta elektronikoz edota telefonoz ematen genuen informazioa. Orain, beste informazio kanal bat ere ireki dugu: txat *online*. Jendeak asko erabiltzen du hori".

Udari begira, txertaketak aurrera egin eta uda polita izatea espero du Elorzak. "Irteteko eta bidaiatzeko gogoz gaude denok, eta ea uda polita dugun". ■



TIRAMISUA

Osagaiak (Zortzi lagunentzako)

- 500 gr. mascarpone gazta
- 4 koilarakada azukre
- 4 arrautza
- Amaretto likore kikara bat
- Kakao+kafe+ amaretto nahasketaren basokada bat
- Soletilla bizkotxoak edo sobao txikiak

Prestaketa

- Mascarpone gazta azukrearekin eta arrautza gorringo batekin nahastu behar da. Nahasketa horri, amaretto txorrotada bat nahastu behar zaio gero.
- Beste ontzi batean, lau arrautza zuringo harrotu behar dira, elur puntua lortu arte (gatz pixka batekin).
- Aurretik prestatuta dauzkagun biak nahastu batera, masa uniforme bat lortu arte.
- Ontzi baten hondoa bizkotxoekin estali behar da, eta ondoren, bizkotxo horiek ondo busti behar dira kakao, kafe eta amaretto nahasketarekin.
- Aurretik eginda dagoen nahasketa edo masa bustitako bizkotxoan gainetik bota behar da.
- Bukatzeko, kakao hautsarekin apaindu behar da. Hotza zerbitzatu behar da; beraz, aurretik hozkailuan edukitzea komeni da.

On egin!



Kolore festa

Santa Kutz Berri mintegian baratze landareak, landare apaingarriak eta mahai sagarrak ekoizten dituzte. “Umeak ginela, amamak baratzeke produktuak ekoizten zituen, eta landareekin lanean aita (Jose Manuel Izagirre) eta ama (Rosarito Igartua) hasi ziren. Mintegian lanean ari garen bigarren belaunaldia gara gu”, dio Idurre Izagirrek. Berezoak etxera joaten zaizkie landareen bila edota azoketan saltzen dituzte. Argazkiak eta testuak: **Nerea Uranga.**



HAZITEGIAK

Piper mota desberdinak, tomateak, kalabaza, kalabazina, letxuga... dira lantzen dituzten baratze landareak. Landare bakoitzak bere prozesua duela azaldu du Izagirrek.

NEGUTEGIAK

Bost negutegi dituzte Santa Kutz Berri mintegian, baina hiru dira garrantzitsuenak edota gehien erabiltzen dituztenak. Ekoizten dituzten landare gehienak garaian garaikoak dira, baina sasoirik “fuerteena” udaberria da Izagirrerren esanetan.



POTOAK

Landareak sartzeko potoak edo lorontzi txikiak ilaran jarrita. Zinta garraiatzaile batean jartzen dituzte, eta banan-banan landarea sartzen joaten dira.



LOREAK

Lore landareen sasoia udaberria eta uda bitartekoa dela nabarmendu du Santa Kutz Berri mintegikoak. “Hala ere, uda aldera asko jaisten da lore landareen eskaria”.



GERANIOAK

Lore landareetan erregina da: udaberrian jende gehienak aukeratzen duen belar lore landarea. Gainontzean, sufinia da beste lore landare preziatua udaberrian. “Geranioa formatu txikiko landarea da, lore handiak ematen dituena eta zaintzeko erraza”.



TOMATE, PIPER, MARRUBI, LETXUGA

Baratze landareak izan arren, gaur egun gero eta gehiago landatzen dira landare hauek etxeko balkoietan edota terrazetan. “Tomate txikiarena lore landare gisa gero eta jende gehiagok eramaten du, zaintzeko ere erraza da eta”.



BARRUKO LANDAREAK

Santa Kutz Berri mintegian ekoizten dituzten lore landare guztietatik %5 besterik ez da barruko landarea. “Baditugu barruko landareak ere, baina gutxiago. Horiek kanpoko landareek baino prozesu luzeagoa dute hazteko”.



SAGASTIAK

Sagastiak ere badituzte Santa Kutz Berri mintegiaren inguruko lur sailetan. Orain, gainera, loretan daude. Mahai sagarra ekoizten dute, gero saltzeko.

AZOKAN

Baserrira bertara joaten zaizkie bezeroak landareak erostera, baina azokaz azoka ere ibiltzen dira landareak saltzen. Azkoitian (orain, plazan Udaltzaingoaren aurrean), Azpeitian, Legazpin eta Zumarragan jartzen dute postua. ■■■



Melodia ilunak



TESTUA: XABIER ETXANIZ

Egiari zor, ez naiz izan musika kontsumitzaile sutsu horietakoa. Nerabezaroan, ez ditut jantzi gustuko taldearen kamixetak, eta ez naiz kontzertu askotara joan. Gidatzerakoan ere, irratian jartzen zutenarekin konformatzen zen horietakoa izan naiz.

Trikitixa doinuak ez dira falta izan gurean. Epelde eta Larrañagaren kaseteek makina bat buelta emango zituzten gure amaren kotxean. Irrintzi eta bertso erritmokoak izan ohi ziren etxetik kalerako bidaiak. Eta doinu horiek, eta orokorrean trikitixa oinarri duten ia guztiek, badute festarako doinuen antza. Alaiak izan ohi dira, hanketan nolabaiteko zirrara pizten dutenak eta eskuei kriskitinak eskatzen dizkienak.

Trikitixa soinean horrenbeste urtez jantzi dut; eta nola ez, neuk ere hainbat aldiz jo ditut doinu alai horiek. Baina konturatu naiz nire belarriek beti alde egiten zutela minorrean jotako doinuetara. Tonu minorrean jotako melodia horiek ziren nire gustukoak.

Pasatu dira urteak eta harpidetu naiz musika *online* kontsumitzeko plataforma batera. Eta orain bai. Gidatzen noala, sukaldean ari naizela edota sofán etzanda nagoela, musika entzuteko ohitura dut.



Neurri gabe eta une oro kontsumitzen dut musika. Eta belarriak, oraindik, minorrean dauden melodietara joaten zaizkidala ohartu naiz. Doinu eta melodia tristeetara. Kantu ilun eta goibeletara. Letra sentiberak dituztenetara.

Lagun batekin baino gehiagorekin jarri izan ditut kanta horiek kotxean, eta denek erreakzio bera izan dute: ez geundela meztatan, eta faborez, ganorazko musika jartzeko, ea ez al nintzen tristeago jartzen horrelako musika entzunda.

Ez. Nik neurean jarraitu dut. Pozik nagoenean horrelako abestiak entzuteak lasaitu egiten nau. Eta triste

nagoenean, sosegatu. Amorratuta edo haserre nagoenean, tripako korapiloak askatzen dizkit, eta antsietate handia dudanetan, barrenak baretu. Niretzat musika entzutea terapia moduko bat ari da izaten azken boladan eta niri halako doinuek lagundu egiten didate.

Hala ere, goizeko ordu bietan tabernaren batean beste mota bateko abestiren bat badago, ziurrenik dantzan ikusiko nautzu.

Abestiak bideak eta pertsonak bezalakoak baitira. Guztiek eramango gaituzte norabait. Baina gutxi batzuek bakarrik guk nahi dugun lekura. ■



IZARRAITZ

Lanbide Heziketa

Guztiona, guztiontzat!



Ziklo guztiak
euskarara hutsean

- **ELEANITZA:** ziklo hauetan modulu batzuk **ingelesez** egiteko aukara.

CCVEI-Idaz
kurtsuaren
prebentzio
programa
2023-2024

ATE IREKIAK

Maiatzak 27

9:00 - 19:00

Erdi maila:

- MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONENTZAKO ARRETA
- MEKANIZAZIO TEKNIKARIA
- AROTZERIA ETA ALTZARIGINTZA

Goi maila:

- ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
- MEKATRONIKA INDUSTRIALA *
- FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA
- GIZARTERATZEA
- PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN GARAPENA **BERRIKI**

Eskaintza partziala:

- DISEINUA ETA ALTZARI HORNIKUNTZA

www.izarraitz.eus

CIFP IZARRAITZ LANBIDE HEZIKETA LHFI
Altamira auzoa z/g. 20720 Azkoitia (Gipuzkoa)
Tel. 943 85 21 74 - bulegoa@izarraitz.eus



Gertu nahi banauzu



IXABEL JAUREGI ALBERDI

Entzule nahi zaitudan adiskide kuttun: 1982ko azaroaren 11n jaio nintzen, Donostiako Andia kalean. Agian, ezagutzen nauzu, baina zurekin inoiz baino gertuago izan nahian, lerro hauek idaztera ausartu naiz.

Gaurkotasunez bizi dugun garai honetan, beharbada goibel, etsita, bakarrik, zoriontsu, baikor, herriminez, maiteminduta... aurkitzen zaren horri zuzentzen naiz. Euskara hutsean, inoiz baino gertuago sentitu nahi zaitut

Musikarekin ase nahi zaitut, horretarako askotariko aukera eskainiz, euskal kantak nahiz mundu guztikoak.

Zer garrantzitsua den hizkuntza bat mugitzen den hitzekin jolas egiteko gurpil soro eta erakargarria: olerkien bidez, bertsoen trinkotasunez, trebetasunez, gaiari ertz guztietatik helduz.

Kirola jarraitzea, praktikatzea gustuko duzula pentsatzen dut; horretan aldian egongo zara nirekin bat eginez gero.

Mundua eta bizitza ulertzeko tresna egokiak eskaintzen dizkigu zientziak eta sail hori ere zure esku jartzen dut: klima aldaketa, berrikuntzak, ikerketak, trantsizio ekologikoa... nabarmenduz.

Orduero, egunerokotasunari buruzko informazio tantak

kontu handiz prestatzen ditut, baita ikuspegi askotako iritziak bildu ere.

Zutabegileak jarraitzeko joera baduzu, buru argidunen gai desberdinekiko zerrenda ez da motza, haiek adi-adi jarriko zaituzte.

Eta ez pentsatu zutaz ahanzten naizenik; zuk parte hartzeko, zure bizipenak kontatzeko, amuak botako dizkizut, nire lantalde oparoan zure presentzia ezinbestekoa zaidalako. Zu gabe ez nintzateke ezer eta.

Irakurzalea bazara, maiz idazleen eta irakurleen erakusleio ederra nauzu.

Osasunarekin arduratsua naiz, eta astero pare bat kide aritzen dira gaiaz hizketan eta koltsultak erantzuten. Nola ez, baita aldareetan egotea merezi duten nekazariak, txorien bitxitasunez aritzen direnak edota euskal kulturaren transmisioaz kitzigarri jarduten dutenak ere.

Sortzaileak ere maite ditut: margolariak, musikariak, argazkilariak, zinemagileak, antzezleak... Haiek ere ezagutaraziko dizkizut.

Inoiz baino gertuago sentitu nahi zaitut, 365 egunetan, 87,7 dialean, horretarako lantalde profesionala zure esku jarriko dut, konpainia egiteko prest nauzu, etxeko lanetan, etxeko kanpo, naturan, kotxean, ... ordu txikitan, lo hartzen ere lagun zaitzaket. ■

Bertsoa paperean

Gaia: Hara gure herriko...
Doinua: Antton eta Maria
Egilea: Eneritz Artetxe.

"Hara gure herriko mutil eta neska, nahiz jakin gustukoa duzuela festa horrela ibiltzeko momentua ezta".
Alkateak egin du bideoz protesta orain bi aita dauzkat bat nahikoa ez ta.

Urtea daramagu besteei begira, ta aukera dugunean belarritik tira! ez da erraz moldatzen neurrien neurrira ardurak eskatzea ondo dago, tira, norbere esku daudenak betetzen badira.



BIYONA

BARNE DISEINUA ETA ERREFORMAK | INTERIORISMO Y REFORMAS

etxea sukaldea
bainugela ...
leihoak
etxeko altzariak

eraberritzekotan?



Bisita gaitzazu



San Juan Auzoa, 16 · AZKOITIA · ☎ 943-85 21 10 · www.biyona.net



LANBIDE HEZIKETAKO
IKASTETXE INTEGRATUA
CENTRO INTEGRADO DE
FORMACIÓN PROFESIONAL

HEZIKETA ZIKLOAK

INFORMAZIO SAIO PRESENTZIALAK

MAIATZAK 12 eta 29

GOI ETA ERDI MAILAK

- DISEINUA
- PRODUKZIOA
- MEKATRONIKA/MANTENTZEA

EMAN IZENA!
www.imh.eus/zikloak



Azkue auzoa, 1 Elgoibar (Gipuzkoa) • zikloak@imh.eus • 943-74 82 65

**MILAR
LARRAMENDI**

Etzetresna elektrikoak



**AZKEN
ALEAK**

**dyson v7
motorhead**
XURGAGAILUA

Lehen 349 €
Orain 299 €



dyson ETXEAK DITU
MERKATUKO XURGATZAILE ONENAK,
eta **MILAR LARRAMENDI**
BAKARRIK AURKITUKO
DITUZU



Julio Urkixo, 16 • AZKOITIA • 943-85 18 97 • www.milar.eus

FK
KOPISTEGIA

Inazio Iriarte, 1 • 20720 **AZKOITIA** • (Gipuzkoa)

Tel.: 943-85 20 52 • Faxe: 943-85 20 91

j.artetxe@fkkopistegia.es

